



\_elkarrizketa:  
**EIDER SANTAMARIA >**

**“Fisikoki zein psikikoki asko suposatzen duen kirola da igeriketa”** 12. or

**Jendartea**

Asko dira auzolan bidez eskualdean atontzen ari diren tokiak 7. or.

**Kultura**

Musikaren Astea antolatu dute Urduñako kaleetan, zazpigarrenez 12. or.

**Iritziak:**

- TXUTXI ARIZNABARRETA** 2. or.
- IRATI MENDIGUREN 6. or.
- RAUL ARZA** 7. or.
- TXANI RODRIGEZ 10. or.
- JULEN REKETA** 12. or.
- EDORTA MORENO 11. or.
- MIREN AYESA** 16. or

**aiaraldea** 

Aiaraldeko hamabostekaria  
2013 /// Azaroak 14 ///  
OSTEGUNA  
4. alea ///  
Doan ///  
www.aiaraldea.com

# Indarkeria matxistak 53 salaketa eta hildako bat utzi ditu eskualdean



**TXAKOLINA:** Aiaraldeko 11 upategiek 478.500 litro txakolin ekoiztea aurreikusi dute aurtengo uztan. Merkaturatuaren %60 atzerrian saltzen da 6 or.

48. **DURANGOKO AZOKA**  
kulturaren plaza

2013ko abenduaren 5etik 8ra [www.durangokoazoka.com](http://www.durangokoazoka.com)

  @durangokoazoka



leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez ETA LITERATURA. Besterik ez LITERATURA. Besterik ez Besterik ez ez

**ANTOLATZAILEA**  
Durangaldeko Adiskideen 

**BABESLE NAGUSIA**  
  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

**BABESLE PUBLIKOAK**

**BABESLE PRIBATUAK**

# \_iritzia



**Txutxi**  
Ariznabarreta  
KOMUNIKATZAILEA

## \_Balkoitik


*Eta gu? zerura begira?*

**E**uropan independen-  
tziaren aldeko haizeak  
mugitzen ari dira, in-  
dartsu joko dute  
2014an. Eskozian irailaren  
18an egingo duten errefe-  
rendumean izango dute in-  
dependentziaren atea zabal-  
tzeko aukera. Katalunian, az-  
ken Diadako "Via catalana  
cap a la independència"-ren  
arrakastaren ostean, ziur  
nago urrats berriak egin-  
go dituztela datozen hilabe-  
teotan. Hauek ere mahai gai-  
nean daukate 2014an bertan  
kontsulta egiteko aukera. Es-  
kizia eta Katalunia badoaz!  
Edo, badabilta behintzat!  
Eta gu, zerura begira? Ez dau-  
kit zeren zain gauden, Madri-  
lerantza begiratu eta ikus-  
ten dugun panoramak berak  
erakusten digu bidea: Euskal  
Estatuak gabe ez dago etor-  
kizunik Euskal Herriarentzat.  
LOMCE legea da horren adie-  
razgarri: asimilazioa, zentra-  
lizazioa eta espagnolizazioa  
erarik gordinenean. Aldi bea  
rean, babes sozialaren eta  
zerbitzu publikoen desmate-  
lamendua eta gure sare pro-  
duktiboaren hondamena;  
langabezia eta pobrezia; us-  
telkeria eta inboluzio politi-  
koa; gure hizkuntza eta kul-  
turaren etengabeko era-  
soak; eskubide zibil eta poli-  
tikoen urraketa sistematikoa  
... Nora goaz horrela? Neka-  
tuta gaude etengabe erasoen  
aurre egitearekin eta noraez  
honekin. Independentzia da  
hau guztia oinarritik aldatze-  
ko alternatiba bakarra. Gaur  
independentzia ez da soi-  
lik abertzaleen nahia, herri  
baten beharra baizik. Bidea  
zehaztu eta mugarririk jar-  
tzeko garaia da.



**Amets**  
Dendaria

Lokalak egotea ez da herria-  
rentzat zertan kaltegarria izan  
behar. Hori, erabileraren arabe-  
rakoa da. Gure kasuan 48 lagun  
gaude lonjan eta lokaletik ateraz-  
ten gara, asteburu edo jaietan  
herrian parte hartzen dugu. Lo-  
kalean afariak, jolasak, pelikulak  
ikusi... egiten dugu.



**Jabi**  
Langilea

Oso gaizki iruditzen zait, lo-  
kal autogestionatuek alternati-  
bak izateko lan egiten dute eta  
jendeak nahiago du playstatio-  
nera lagunekin jolastu. Ez dute  
ezer egin nahi, ez dute ekitaldi so-  
ziokulturaletan parte hartzen,  
nahiago dute toki itxi eta pribat-  
uetan egon. Ez dut uste gazteen  
lonjak taberna edo bestelako le-  
kuen alternatiba direnik.

## ? \_GALDERA

Zer iruditzen zaizu  
gazteek aisialdia  
lokaletan igarotzeko  
duten joera?

Proposatu zuk ere galdera  
egunkaria@aiaraldea.com  
helbidera idatzita



**Cristina**  
Ikaslea

Niri ondo iruditzen zait. Adibidez,  
orain, udazkenean eguraldi txarra  
hasten da eta ez daukagu lekuri-  
denbora pasatzeko. Tabernak eta  
horrelako lekuetan egotea da du-  
gun aukera bakarra.  
Lokalek duten alde txarra txo-  
koetan gure lagunekin bakarrik  
egoten garela da. Eta, ondorioz,  
ez garela gainontzeko gazteekin  
harremantzen.



**Aitor**  
Tabernaria

Gazteek ez dute egoteko le-  
kurik, baina jendea kalean egon  
behar da, ez lokaletan. Argi da-  
goena da arautegi bat izan behar-  
ko luketela. Aisialdirako kultura  
abiadura handian aldatzen ari da.  
Jendea ez dago kalean, ez ditu ha-  
rreman pertsonalak lehen beza-  
la lantzen.



**Consuelo**  
Jubilatua

Ez zait gustatzen gazteak ta-  
bernetan egotea, nahiago ditut  
lonjak. Ez badute lanik ez etxerik,  
nonbaiten egon beharko dira!  
Ni Galiziatik etorri nintzen hona.  
Gure gaztaroan beste garai bat-  
zuk bizi genituen, orduan ez ze-  
goen dirurik, lana bai. Orain alde-  
rantziz. Guk gaztetan lan egiten  
genuen. Garai hauek txarrak dira,  
baina ordukoak okerragoak ziren.

## TWITTERen #albisteizanda

@xalbide: Unai Albizua lau-  
dioarrak Athleticen 1. tal-  
dearekin debutatu du ligan  
@aiaraldea @athletic\_eus

@Aritz\_A: Aitor Hernandez  
gairaille #ziklokrossa

@AimarRahim Zorionak  
@mendikolagunak, martxa  
bikaina!

@armariaeugenia  
Primerako goiza menditik!  
#Garobelbilaldia

@aiaraldea Artziniegako  
Museoan antzinako ogibideen  
erakustaldia

@GanbegiHTK 2-1 Parayas  
taldeari irabazi dio.

@ixonetxo #uluka taldea  
Zolloko jaietan! @aiaraldea

@aiaraldea Baserritar olin-  
piadak egin dituzte Zollon.  
Tartean, sokatira

@aiaraldea Audioko al-  
dai plazan aurkeztu dute  
@IkunelICP ekimena. Aurkez-  
penean, 3 alkate, Garbiñe Biu-  
rrun epailea eta @wolfabm

@lezamakojaiak #bada-  
tornegua baina Lezamako  
txokoa beheko sua prest  
egongo da

TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013  
ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com / iragarkilaburrak@aiaraldea.com  
publizitatea@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

OHARRA: Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

LAGUNTZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA  
Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Leihoa  
Nerbio Kalea 1, 3. esk. Audio. Araba. 01400 Tel: 94 656 85 54  
Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470. Tel: 945 06 66 84  
Sakeleko Telefonoa (WhatsApp): 688 848 152



# \_gutunak

## Osasun zerbitzuen urradura, agur unibertsaltasuna

Garrastatxu Landaluze. Erizaina (Urduña)

**P**asaden uztailean Eusko Jaurlaritzak etorriberri guztiei osa-  
sun zerbitzuak jasotzea bermatzen zuen ordena arautu zuen,  
modu honetan Espainiako Gobernuak ezarritako 16/2012 Erre-  
ge Lege Dekretuari, bizileku baimen gabeko pertsonen osasun asisten-  
tzia jasotzea galarazten dien legeari, aurre eginez.  
Konstituzio Auzitegiak, Eusko Jaurlaritzak bizitzeko baimen legalik  
gabeko pertsona batzuek (soilik Euskal Autonomi Erkidegoko udalerrri-  
ren batean urtebetez bizitzen zerametela frogatzen zutenentzat) osa-  
sun asistentzia izatea bermatzen duen osasun-txartela lortzea ahal-  
bidetzen zuen neurri honi abala eman zion. Baina, gainontzeko paperik  
gabeko etorkinak? Isiltasuna Eusko Legebiltzarrean.  
Egun hauetan jakin dugu Espainiako Gobernuak Osasun sailburua-  
ren agindu honen aurkako errekurtsioa jarri duela Konstituzio Auzite-  
gian. Gehiegikeria omen da urtebetez hemen bizi direnei osasun asis-  
tentzia ematea! Osasun-zerbitzu doakoa eta unibertsala zen, pertso-  
nen artean hainbeste desberdintasun sortzen dituen gizarte honetan,

desberdintasunen murrizketetara zuzenduriko zerbitzu garrantzitsu-  
netako bat.  
Izan ere, unibertsaltasunak justiziaren printzipio bioetikoan dauka oi-  
narrria: pertsona guztiei osasun asistentzia jasotzeko aukera berdina  
bermatzea desberdintasunei aurre egiteko. Mingarria eta lotsagarria  
izan zen uda honetan bertan herrikide batentzat, bere osasun-txarte-  
laz baliatuta, medikuarentzako hitzordua eskatzera etorri zen pertsona  
bati hori ezin zitekeela egin eta urgentzietara joateko esan behar izatea.  
Etorkin hark ez zeukan osasun zerbitzu guztiak jasotzeko eskubiderik.  
Larria da egoera: badira osasun zainketak jasotzeko eskubidea zeinek  
duen eta zeinek ez duen legezkatzen ausartzen direnak; geure bizilagun-  
nei gaixotasunean beharrezkoak dituzten zainketak ez jasotzeko legeak  
egiten ausartzen direnak.  
Batzuek beste alde batera begiratzen dute, ezjakinarena egiten. Bes-  
te batzuek behera, lotsaturik. Egoera honi aurrez aurre begiratu behar-  
ko gero, ezta?

# \_herriz herri

## Amurrio

## Lezama

## Okondo



Gazte asko lonjetan elkartzen dira aisialdian Argazkia: Txabi Alvarado

## Lonjak erregulatzeko araudia prestatzen ari da udala

ERREDAKZIOA |  | Txabi Alvarado Bañares

Ordenantza zirriborro bat prestatu du udalak Amurrioko gazteek erabiltzen dituzten lokalei begira, "zeinetangehienbat gazteek ondo pasatzeko duten eskubidea eta auzokideek atseden hartzeko dutena elkartrukatu diren". Horrela azaldu dio Josune Irabien Amurrioko alkateak Aiaraldea Egunkariari.

Puntu sistema bat izango da ordenantzaren funtsa, "gaur egun gidabaimenarekin gertatzen den bezala", Irabienek hitzetan.

Lonja batean egon nahi duen gazte talde orok aurretik udalaren erregistro batean eman beharko du izena, eta bost puntu emango zaizkio horrela. Ordutegia ez errespetatzea, aseguru ezizatea,

garbiketa baldintzak ez betetzea... horrelako hutsegiteek puntu galera ekar dezakete. Alkateak aurreratu du hiru hutsegite mota egongo direla: arinak, larriak eta oso larriak. Azken bietan, puntu galeraz gain, isun ekonomikoa ere egon daitekeela gaineratu du Irabienek.

Puntu guztiak galtzeak lokalaren itxiera ekar dezake, eta egoera horretara iristen diren gazteek urte bat itxaron beharko dute beste espazio bat alokatu ahal izateko, alkatearen arabera. Irabienek adierazi du gaur egun gazteek "eramasiboan" erabiltzen dituztela halako espazioak. "Amurrio bezalako herrietan gaur egun gazteek aisialdi formula

honetara jotzen dute". Horregatik, "gutxieneko baldintza batzuk" bete behar direla aldarrikatu du politikariak.

Ordenantza hau ez da hutsetik datorren zerbait, Irabienek azaldu duenez; atzetik "oso lan zehatz eta handia" baitago.

2009an arautegi bat onartu zela gogorarazi du alkateak, eta duela urte eta erdi lonja "guztietatik edo ia guztietatik" pasatu zirela, "nolakoak ziren ikusi eta prozesuaren berri emateko" xedearekin. "Bilerak egin ziren. Batetik jabeekin, bestetik auzokideekin eta, baita ere, noski, gazteekin". Horretaz gain, lortutako informazioa partekatze berriz ere pasa ziren lokaletatik, Irabienek arabera.

### Zirriborroa, lantze prozesuan

Hala ere, alkateak azpimarratu du ordenantza ez dela behin betikoa, "lantze prozesuan" dagoela.

Gazteria arlotik pasatu dela gaineratu du, eta, "neurri handi batean", adostasuna nagusi zela bertan. Bere ustez, ordenantza zirriborroa "guztien ekarpenekin egindako dokumentu bat" da, "eta momentuz badirudi aurrera aterako dela". Datorren osoko bilkuran eztabaidatua eta onartua izateko aurkeztu nahi dutela aurreratu du alkateak; eta 2-3 hilabeteren bueltan martxan egotea aurreikusi dute.

"Pentsa daiteke agian ez dela guztiak gustukoa izango, gauza guztiak bezalaxe", aitortu du Irabienek. "Zentzu horretan oso zaila da %100ean asmatzea".

"Oso formula praktikoa" bilatu dutela gaineratu du politikariak, eta zirriborroak jasotzen duena jabe, auzokide zein gazteentzako ona dela ziurtatu du.

+ info: Aiaraldea Irratian Josune Irabienekin egindako elkarrizketa



## Azaroaren 16an eta 17an ospatuko dituzte Lezamako jaiak

ERREDAKZIOA |  | Irati Mendiguren

Iritsi dira Lezamako jaiak. Ekitaldi gehienak asteburuan izango badira ere, astelehenean eman zitezaien hasiera festei. Urtero bezala San Martinen omenez meza burutu zuten, eta ondoren, 65 urte gorakoen herri bazkaria. Arratsaldean, aldiz, herriko briska txapelketa parekidea egin zuten. Baita txokolatada ere.

Ekitaldi gehienak, ordea, ostiralean eta larunbatean izango dira.

Azaroaren 16an, diskodantzarekin gau osoa igarotzeko aukera egongo da.

Larunbatean, berriz, haurrentzako jokoak eta "herri arteko herri kirolak" izango dituzte. Ekitaldi hau antolatzen duten zortzigarren aldia da. "Normalean hiru edo lau herri parte hartzen dute, taldeko 12-14k", dio laioa Otaola lezamarrak. Lasto altxaketa, sokatira... egiten dituzte, besteak beste.

Jaietara emateko, herriafaria egingo dute.

### Autobus zerbitzua eta karpa

Ostiralean eta larunbatean bertaratzeko erraztasunak eskaintzeko autobus zerbitzua egongo da Amurriotik. 23:30ean aterako da eta 05:00etan jaitzi. "Telefonikatik ateratzen da. Autobusa betetzen bada, behin baino gehiagotan egingo da joan-etorria".

Eszenatokia, karpa, txosna eta egitaraua prestatu dituzte. Jaietaz gozatzea baino ez da falta.

+ info: Argazki bilduma, Lezamako jaietako 2012ko galeria



## Udaletxeko erreforma lanak udaberrian amaituko dituzte

ERREDAKZIOA | Kaitin Allende

Sergio Tatok, Okondoko alkateak, adierazi duenez, udaletxeko lanak orain hilabete eta erdi hasi ziren eta, datorren martxorako bukatuta egotea espero du. "Oso lan gogorra izan da: udaletxea hustu, guztia kultur etxera eraman eta gune administratiboan bilakatzeko" esan du. Herriko kontsultategi berria zabaldu zenetik, udaletxeko beheko solairua hutsik geratu zen, gizarte laguntzaile bako ez baitzegoen bertan lanean. Izan ere, osasun arreta zerbitzua orain arte udaletxearen barnean egon da kokatuta.

Lan hauek egiteko aurrekontua gutxi gorabehera 260.000 eurokoa dela adierazi du Tatok. Proiektu eta altzarien gastua ere horri gehitu behar zaio lagin gaineratu du. Eraberritzea egin ahal izateko, Arabako Foru Aldundiak gastuen %60 ordainduko du. Bestaldekik Okondoko udalak EERI eta Eusko Jaurlaritzari irisgarritasun lanak egiteko diruz laguntzeko eskatu die. Azken honek zenbateko laguntza eman gongo duen oraindik ez dakite.

### Eraberritze lanak, bi zatitan

Orain, udaletxea eraberrituko dute. Horretarako, lanak bi zatitan banatu dituzte. Alde batetik, udaletxeko goiko pisuan zeuden zerbitzuak beheara jaisteak. Besteak beste, zergak ordaintzea eta gainerako lanak. Hau da, kontu administratiboak beheko solairuan izatea. Eta, bestetik, irisgarritasunari dagokionez eraikineko solairu biak batuko dituen igogailua jartzea. Orain arte, aulkiki gogotzeko aparatu berezi batenkin moldatu dira.



**Graf!k**

PROIEKTU GRAFIKOAK  
PROYECTOS GRÁFICOS  
GRAPHIC PROJECTS



ERROTULAZIOA,  
GUNEETARAKO GRAFIKA///

Telleria 2, LAUDIO  
www.grafiksarea.com  
Tel: 94 672 65 43

GUREKIN  
ERE  
EUSKARAZ!

## \_herriz herri

### Laudio

### Aiara



Gazte plana egiteko "gazTertuliak" eztabaida saioak adinka antolatu dituzte Argazkia: Aiaraldea.com

# Gazte plana eta diagnostikoa osatzeko kanpaina, abian

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez Ibarrola

*Noka Toka* kanpainak helmuga zehatz bat markatuta du: lehenengo gazte plana eratzea. Horretarako, zer oinarritzako gazteekin kontatzea baino. Parte-hartzea izango du oinarri, helburuak eta jardueren norabidea ezartzeko. Planak datozen 4 urteetako gazte poli-

tika integrala jasoko du, eta zabala nahiz dinamikoa izango da.

Ametz Meaza udal zinegotziak jakinarazi duenez, hirigintza, euskara, berdintasun... planak jorratzen diren bezala, Udaletik gazte politika zehaztuko duen dokumentuaren falta sumatu zuten. Horregatik,

gazteentzat ezer ez dagoenaren iritziaren aurrean, gazte plana gazteekin batera diseinatutako tresna izango dela adierazi du Meazak, zertarako eta egoerari buelta emateko.

Uda hasieran jarri zen martxan kanpaina. Orain arteko ibilbidea he-

dapen estratejiaren baitan egin da: kartelak itsatsi, pegatinak banatu, sare sozialetan zabaldu...

Egun diagnosi fasean aurkitzen dira. Etapa horretan gazteen errealitatea ezagutzeko da helburua. Horretarako adin desberdinetako gazteekin, gurasoekin, hezitzaileekin, eskoletako orientatzaileekin, udaletxe teknika-erakundeekin... hitz egin dute, ahalik eta analisi zuzena egite aldera. Gainera, "gazTertuliak" izeneko eztabaida saio irekiak abiatu berri dira.

#### "GazTertuliak"

Eztabaida saioekin gazteen behar eta lehentasun nagusiak aztertuko dira. Adinaren arabera sailkatuko dira.

Lehendabizikoa aurreko ostegunean egin zen, hilaren 7an, 12-17 urte bitarteko gazteekin.

Hurrengo gaur bertan izango da, 18-24 urte bitartekoekin. Azkenak 25-35 urte bitartekoak baturako izango dira. "GazTertuliak" guztiak kulturara etxean izango dira, 18:30etik 20:00etara.

Prozesuak aurrera egiteko talde anitza eratzea aurrekusi dute udaletik. Talde eragilea izena hartu du horrek. Bertan, gazte antolatuek, ez antolatuek, eragile sozialak eta udal ordezkari teknikoak eta politikoa bilduko dira.

Ekimena aurrera eramanean ahal izateko Bizkaiko Urtxintza Eskola-ko parte-hartze arloko adituen laguntza izan dute.

## Kiroldegiaren zorra kitatzeko epea atzeratzea adostu du udalak

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

Aiaran azaroaren hasieran egin dako ez ohiko Udal Osoko Bilkuran Foru Aldundiari zor zaion diruaren ordainketa etetea onartu dute. Administrazio prozedura horretaz baliatuz Aiara Udalak Arabako Foru Aldundiari zorra ez ordainarazteko eskatu dio.

Hala ere, udalaren benetako helburua, Josu Artetxe alkateak esan duenez, ordainketa atzeratzea da.

"Primeran legoke zorrak kentzea, baina aukera errealistena da zorra aurrerago ordaintzea" argitu du alkateak. Hurrengo urratsa erakunde foralak eman behar du; atzerapena onartzen duen ala ez adieraztea. Baiezkoa jasoko balu, Udalak bi urteko atzerapena eskatzea aztertuko luke.

Tarte hori irabaztea garrantzitsua da tokiko erakundearentzat. Denbora horretan kiroldegiaren proiektua idatzi eta zuzendu zuten arduradunen aurkako epaiketara egitea espero baitute udaletik, 2014an hain zuzen ere.

#### Epaiketaren zain

Alkateak azaldu du auzia irabazteko aukera handiak daudela eta nahiz eta tokiko erakundeak eskatu dituen 1.200.000 euro ez eskuratu, zorra ordaintzeko beste lortzea gutxienez espero dute.

Horretarako 744.000 euro jasotzea behar izango litzake Aiara Udalak. Horrekin, Aldunditik jasotako dirua eta interesak itzultzeko aukera izango luke Aiara, kiroldegiaren proiektuarekin ez baitu aurrera egin. Udalak badu ere bere alde Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoak egindako txostena, eta epaiketaren erabiliko du.

#### Salaketa

Aiara Udalak Kiroldegiaren azpiegituran agertutako arrakalenerantzuzletzat jo ditu proiektuaren idazlari taldea eta zuzendaritza. Epaiketatik kanpo geratu da kiroldegia eraiki behar zuen enpresa, haiek abisatu baitzuten lehen fasea gauzatu zezakeen egoera horri erori behar zela.

Pitxaduren ondorioz, lanak berandutu ez ezik diru kopuruaren aldetik ere asko garestitu ziren. Gasteen ere aldaketa ekarritzen horrak: 1.821.068 euro balio behar zuen proiektua 3.000.000 euro ingurukoa bilakatu zen.

## Aiara suhiltzaile parkea birgaitzeko 1,6 milioi euro erabiliko dituzte

ERREDAKZIOA | Aitor Fdz Pinedo

Aiara suhiltzaileen parkean moldaketak egiteko eskaera onartu dute. Eraikinak hogeitau urte baino ez baditu ere, egiturazko gabezi nabarmenak azaldu dituzte hasieratik, oraingo inbertsioak zuzendu beharko dituztenak.

Diru partida eraikina birgaitzeko dela izendatuta badago ere, Toki Administrazioaren Foru Diputatuak, Javier Ruiz de Arbulok, suhiltzaile-parke berria eraikitzeko aukera ere aztergai duela zabaldu du hedabideetan. PSE-EEK berriz, suhiltzaileen eraikinarekin lotuta dagoen Ertzaintzaren komisariaren egoerari buruzko hainbat galdera zuzendu dizkio Segurtasun sailburuari, instalazioetan azaldutako gabezien erantzukizuna eta konpontzeko asmoak argitze aldera.

## Manu Gonzalez preso laudioarrak 18 egun bete ditu gose greban Sevillako espetxeko egoera salatzen



197/2016 doktrina medio 24 urte daramatza Gonzalezek preso

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Sevilla II Espetxean dauden euskal presoek gose greba abiatu zuten urriaren bukaeran. Haien artean Manu Gonzalez laudioarra dago.

Protesta horren bitartez pairatzen dituzten bizi-baldintzak salatu nahi dituzte: isolamendu modu-

luan etengabe egotea, kartzelariak haiei zein senideei egiten dizkieten miaketak eta aktibitatea eza, besteak beste.

Bi aste baino gehiago eman dituzte egoera horretan eta Etxerat elkarteak zabaldu duenez grebalariek batez besteko 10 kilo galdu di-

tuzte. Hori dela eta, Urtzi Paul Getxoko presoak baraua utzi du dagoeneko, osasun arazo larriak izan baino lehen.

Preso laudioarrari zigorra luzatu zioten 197/2006 doktrinari esker eta nahiz eta Estrasburgoko Epaitegiak horren aurka egin duen, Manu Gonzalez kartzelan dago.

#### Asteburuan, elkartasun martxa

Astebururako martxa antolatu dute Laudiotik Morón de la Frontera-ko espetxera elkartasuna adierazteko.

Bestalde, Jorge Fernández Díaz barne-arazoetako ministroak astean zehar adierazi du grebaren jakitun dela baina ez duela horren inguruan ezer esango grebalariei ahalaginei oihartzunik ez emateko.

Pasa den astean gazte batzuk lineako autobus bat margotu zuten Amurrión "Denak ala inor ez, euskal presoak borrokan" lemapean egoera salatu eta elkartasuna adierazteko.

\_herriz herri

## Artziniega



Aparakalekua egingo duten gunea Argazkia: Unai Gotxi

# Hasi dira Arteko Aldapako parkinga egiteko lanak

ERREDAKZIOA | Xabi Zalvide

Artziniegako udalak Arteko Aldapan ibilgailuentzako aparkalekua egiteko obrak abiatu ditu.

Agurtzane Llano alkateak jakinarazi duenez guztira 26 autorentzako lekua izango da. Lanak bi hilabete barru amaitzea aurreikusten da.

Honekin eta Geltoki plazako aparkaleku berriarekin udalak alde zaharreko trafikoa antolatze-ko ordenantzak sortutako egoera

berriari erantzuna eman nahi dio. Proiektuaren berri emateko herrian zehar bandoa jarri dute.

Aurreko astean hasi ziren Artziniegako aparkaleku berria egiteko lanak. Arteko Aldapa kalean egongo da, Jauregia auzoaren parean, eta guztira hogeita sei plaza izango. Obra Onaindia SL enpresari esleitu zaio eta 93.255 euroko kostua izango du, BEZa barne. Lanak egi-

tenari diren orubea<sup>(1)</sup> autoak uzteko erabili izan da azken urteotan, batez ere jaietan edo herrian ekitaldirin bat egon den egunetan.

Eremuaren erabilera, ordea, arautu barik zegoen eta gainera egoera kaskarrean<sup>(2)</sup>. Izan ere, arazoak sortzen ziren lokatzarekin.

Alde zaharreko trafikoa arautzeko eta antolatze-ko ordenantza berriak ere zerikusia du aparkaleku berri hau eraikitzearekin. Kontua da uda aurretik indarrean sartu zela aipaturiko ordenantza, eta horrek eragin duela lehen alde historikoan -debekatutako lekuetan- aparkatzen zuen jendeak hortik kanpo aparkatzen duela orain, eta ondorioz aparkalekuen beharri-za handitu da.

Hori konpontze aldera, ekainean aparkaleku berri bat egin zen Geltoki plazan, eta oraingoan horri Arteko Aldapako hau gehituko zaio. Aurreikusita dago urtea amaitu baino lehen amaitzea, lanetarako bi hilabete-ko epea ezarri da eta.

### Aurtengo inbertsioak

Otsalean onartu ziren udal aurrekontuak Artziniegan; inbertsioak egiteko guztira 1.755.188 euroko diru partida. Mendian bi pasabide kanadar jartzeko 7.000 euro daude, baina ez dituzte egin. Berez Aldapako baranda, berriz, egin barik dago, irisgarritasuna errazteko Jaurilaritzaren diru-laguntza baten zain daudelako. Udalak 2.300 euro bideratu ditu eta guztira 6.000 euro dira.

**Hiztegia:** Orube<sup>(1)</sup>, lur zatia / Kas-karrean<sup>(2)</sup>, txarrean

## Arrankudiaga - Zollo



Iragan astean Arrankudiagan egindako udalbatza Argazkia: Aiaraldea.com

# Frankismoaren biktimak aitortzen dituen mozioa onartu dute

ERREDAKZIOA | Markel Iturrizar

Arrankudiaga-Zolloko udalak aho batez onartu du, Bildu eta EAJren botoekin, *Frankismoaren aurkako Kereilaren Euskal Plataformak* proposatutako mozioa.

Sei puntuz osatutako mozioa da. Onartutako testuan, 1936ko uztailaren Franco militarren antolatutako altxamendu militar-faxista kondenatzen da. Besteak beste, gerora ezarri taberrotegi urtez luzatuz diktadura erregimena ez-legitimotzat jo dute. Hortaz, kolpe militar haren alde eta gerora bere gobernuaren alde egin zu-

tenen aldekoak salatzen dira. Era berean, erregimen totalitarioak errepresaliatuak izan zirenen eskubide eta eskaeren alde egin dute. Finean, administrazio publiko eiegia plazaratzea, justizia aldarrikatzea, erreparazioa eskatzea eta errepika-ezinenaren bermea ezartzea eskatu dute.

Bestalde, udalak gaitzetsi egin du atzeritik, Argentinatik bereziki, egiten ari diren ikerketen aurka eraman ari diren oztopoak eta Espainiar Gobernuaren presioa. Mozioaren azken puntuan, udalak herritar guztiei dei egin die sinatutako kereilaren alde egin dezaten.

## Orozko

# Auzo asanbladen bidez herriko lehenatasunak zerrendatuko dituzte

ERREDAKZIOA | Lukas Pasandin

Orozko udalak, aspaldi abiatutako dinamikari jarraiki, auzo asanbladak egin ditu herriko auzo guztietan.

Auzo asanbladen dinamikaren helburua auzo guztietan elkarren berri izatea da. Horretarako, auzo bakoitzak bileretarako ordezkari bat aukeratu du, eta udalalanean ari da ordezkari horiekin guztiekin.

Orozko alkateak, Josu San Pedrok, nabarmendu duenez, auzo bakoitzeko errealitatea oso ezberdina da eta udalak hori guztia kontuan hartu ahal izateko erreminta

izango dira asanblada hauek.


### 80 auzo, zazpi gunea

Orozko 80 auzo baino gehiago ditu, baina udalak zazpi gunetan ezberdinetan banatu ditu.

Urriaren zehar auzoaren eskaera guztiak jaso dituzte. Atzo, beharrak zerrendatzeko kontseilua egin zuten. Bertan ordezkariak eta udala bilduko ziren aurrekontuak eta egoeren azterketa mahai gainean jartzeko. Jaso diren ideia guztiekin erakusketa bat antolatuko da auzoan zehar herrian.

## Aiaraldea

\_Iruditan



Gorobelego mendi ibilaldia egin zen igandean. Eskualdetik zein Euskal Herritik jende mordoak hurbildu zen Mendiko Lagunak taldeak antolatutako zeharkaldia egitera.

# sozioekonomia



Raul Arza  
UGT sindikatua

## Argia

Krisialdia  
aitzakiaz erabilia

**K**risialdian gaude murgilduta baina bere ondorioak ez dituzte ordaintzen eragin dutenak. Beti bezala gizartearen jende behartsuena ordaintzen ari da krisia. Ez da egon diagnosi partekatua krisialdiaren sorreraren inguruan: krisi finantzieroa, bankuen porrota eta zorpetze masiboa. Baina aurretik bazegoen estrategia soldatak jaisteko ekoizpenaren igorari lotuta. Horren emaitza izan da soldaten errenten jaitsiera eta enpresari errentak igotzea.

Krisialdiaren diagnosi txarrak terapia erratua ekarri du: laztasuna; bere helburua da errudunak garaile bihurtzea. Laztasunaren politiken ondorioak aski ezagunak dira beste herrietan (Greziar eta Portugalen): langabezia gehiago, soldaten jaitsiera, errenta ertain eta txikien zergen igoera, etxe kalera-eteak, murrizketak osasun sisteman, hezkuntza sisteman, dependentziari aurre egiteko tresnetan eta pentsioetan... Horiek dira txirotasuna arazotzen duten arazoak, eta finen, eskubideen murrizketa ekarri dutenak.

Batzuk krisialdiaz profitatu dira perfektua ez zen eredu sozialarekin bukatzeko. Eta herri-tarren artean beldurra, ezine-gona, segurtasun eza eta etsipena zabaltzeko. Beste politika batzuk ezinezkoak direla kontentitu nahi dituzte. Baina kontentibidea beste politiketatik etorriko da, bere gabezi eta potentzialtasunekin, adostasun eta akordio zabalen bitartez mahai gainean politika publikoak, enplegua eta gizarte-ongizatea jarritz.

## Milioi bat botila txakolin ekoiztea espero dute eskualdeko 11 upategiek



Lezamako UNO txakolindegian uzta jasotzea Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Ekin diote lanari Aiaraldeko upategiek. Mahatsa bildu eta prentsatu, garbitu eta ontziratu egingo dute, prozesuaren azken emaitza lortu arte: txakolina.

Hamaika upategi daude guztira Aiaraldean. Bost Amurrion, bi Laudion eta bana Orozko, Okondo, Urduña eta Arrankudiagan.

Bizkaian kokatuak dauden upategiek Bizkaiko Txakolina jatorrizko izendapena dute, eta Araban kokatuak daudenek Arabako Txakolina izendapena. Bien artean 478.500 litro txakolin inguru ekoizteko asmoa dute aurten.

Ekoizpena "izugarri" handitu da iaz Orozkoko upategia ireki zene-tik, Bizkaiko Txakolina elkartean arabera. Eta hazkundea ez dirudi etengo denik, mahasti-azalera "pik-kanaka handitzea" baita Arabako Txakolinaren asmoa, Jose Antonio Merino elkarteko idazkari-gerentearen arabera. Helburua: urtean milioi bat botila ekoiztera iristea.

### Desagertzeko zorian

Baina Merinok badaki eskualdeko txakolin ekoizpena desagertze-

## Txakolinaren ekoizpena desagertze- ar egin zen XX.mende- an eskualdean. 1988an bost hektarea mahasti zeuden. Gaur egun, aldiz, 100.

ko zorian egon zela XX. mendearen hasieran. Izurriteek, industrializazioak zein kontsumitzaileen gustuen aldaketak txakolin ekoizpena "ia osorik" desagerrarazi zuten, idazkariaren hitzetan. Baina Aiaraldeko txakolinak bizirautea lortu zuen, jende talde batek ekoizpenari eutsi ziolako, "eskuratzen zuten etekin ekonomikoagatik baino euren arbasoengandik jasotako ohiturak iraunarazteko zaletasun eta nahiagatik".

### Txakolinaren hedapena

1988an elkartea sortu zenean, bost mahasti hektarea baino ez zeudela oroitzen du Merinok, eta orduz geroztik ekoizpena handitu baino ez da egin. Gaur egun 100 hektarea daude.

Aiaraldeko txakolinaren historia, baina, askoz lehenago hasten da, noiz hasi zen oso argi ez dagoen arren. "Aurkituriko idatzizko lehen lekukotzek erakusten dute dagoeneko IX.mendeantxakolinekoizpena jarduera arrunt eta orokortua zela Aiar Haraneko nekazarien artean", azaldu du Merinok.

Hurrengo mendeetako dokumentuetan erreferentziak ugari-tuz doaz. Merinoren arabera, Euskal Herriko idazki ofizial batean "txakolina" hitza 1623an agertzen da lehen aldiz, non eta Arespalditzako agiri batean. Beste aipamen bat Joan Mañe i Flaquer kazetariaren 1879ko idazki batean topatu daiteke, zeinetan Laudioko txakolina "Bizkaiko preziatuena" dela ziurtatzen den.

### Aiaraldetik mundura

Bizkaia soilik ez, mundu mailan ere bere txokoa bilatzen dabil Aiaraldeko txakolina. Arabako izendapena duten botilen %60 atzerrira doa zuzenean, Estatu Batuak, Mexiko zein Japonia bezalako herrialdeetara. Azken herrialde horrek

konexio berezia lortu du Okondoko Señorío de Astobiza txakolinak, sushiarekin konbinatzeko edari bereziki aproposa delako, Kalifornia-ko Sushi Chef Instituterean arabera.

### Nazioartean saritua

Okondokoa ez da eskualdean ekoiztutako txakolinak atzerrian lortu duen aitortpen bakarra.

Delikako Ametsa eta Laudio-ko Beldui txakolinek Parker gidan sartzea lortu zuten 2011an. "Beldui Santi Victoris et Santi Jacobi Brut nature" produktuak, esaterako, 100 puntutik 90 jaso zituen.

Amurrioko, Artomañako eta Okondokoek hainbat sari eskuratu zituzten iaz International Wine Guideren eskutik.

### Oztopoak

Baina aurrera egiteko trabak badituztela aitortu du Arabako Txakolinaren idazkariak. Txakolin faltsuak, beste ardo txuriak... Ugariak dira Merinok ikusten dituen arazoak, krisi ekonomikoa barne.

Krisia dela eta ardoaren prezioa oso altu jarri behar izan dute, eta ondorioz jendeak beste ardo merkeago batzuk erosteko joera hartu du.

Hala eta guztiz ere, txakolinaren garapena ez da eten.

Arabako Txakolina elkarteko ki-deek badute erronka berria: txakolinaren ekoizpenean ingurumenarekiko adeitsuak izango diren teknologia berriak erabiltzea.

Izan ere, Merinok aurreratu duenez, gaur egun uztaren erdia maki-na bidez jasotzen da, eta beste erdia eskuz.

+ info: Argazki bilduma > Lezamako Uno txakolindegian mahats bilketa.



## Arakaldoko Norten lantegiko langileek grebari ekin diote, zuzendaritzak enpresa-hitzarmena apurtzea erabaki duelako

ERREDAKZIOA | Gartzzen Garaio

CCOO, ELA eta LAB sindikatuetako ordezkariak osatzen duten enpresa batzordeak mobilizatu beharra adierazi du. Izan ere, azaroaren 1ean zuzendaritzak enpresa-hitzarmena apurtzea erabaki zuen. Hala, bada, Hormigoizko Aurrefabrikatuen Estatuko Hitzarmena aplikatuko da. Horrek, besteak beste, soldaten %20ko jaitsiera ekarriko du.

Egoerari erantzuteko grebari ekin diote aste honetan. Zehaz-

ki, gaur, 18an, 20an eta 22an egingo dute. Negoziatetean emaitzarik lortu ezean, azaroaren 25etik aurrera greba mugagabea egingo lukete Norteneko langileek. Horrez gainera, Arakaldoko udal-txean egingo den udalbatzan Norteneko langileen aldeko mozio bat aurkeztu dute.

Greba honek atzerapenak eta oztopoak sor ditzake hainbat obra garrantzitsutan, hala nola San Mames Berrian edo Metro Bilbaon.



## 3.540

LANGABETU ZEUDEN ESKUALDEAN URRIAN. IRAILAREKIN ALDERATUTA, 8 LANGABE GEHIAGO

- 1 LAUDION 1.784 (+37)
- 2 AMURRION 877 (-5)
- 3 AIARAN 163 (+5)
- 4 ARRANKUDIAGAN 56 (-2)
- 5 ARTZINIEGAN 127 (-8))
- 6 OROZKON 102 (-9)
- 7 URDUÑAN 359 (-5)
- 8 OKONDON 69 (-10)
- 9 ARAKALDON 8 (+2)

# \_jendarte

## Auzolanean herria eraikiz

Aiaraldea toki ugari ari dira eraikitzen auzolanean, Urduña, Zollo, Orozko, Tertanga.dira horietako batzuk. Gabezia ekonomikoaren aurrean, herritarren eskulana dute baliabide.



Hainbat herritar Urduñako Foru plazan antolatutako auzolanean Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA  Izar Mendiguren Cosgaya

Auzokoan arteko elkarlana. Hori da hiru hitzetan, auzolana. Aiaraldeko herri eta auzo ezberdinetan ere, askotan erabili izan da lan egiteko bide hori.

Arakaldon eta Arrankudiagan, esaterako, ibaiertzeko flora inbaditzailea garbitu zuten herritarrek duela gutxi. Orozkon, Santa Marinako aterpetxea eta baseliza konpontzen ari dira. Abuztuan zehar, Tertangako errota txukuntzeko hilabete osoa eman zuten behar-rean<sup>(1)</sup> Euskal Herritik eta Espainiatik etorritako hainbat gaztek.

Auzolana ez dago lotuta krisi ekonomikoarekin, Karlos Arranz Urduñako alkatearen aburuz. "Guretzat parte-hartze ekintza bat da, hondakin edo esparru<sup>(2)</sup> publikoak guztion artean zaindu edo edertzeko". Helburua ez da dirua aurrezte, "dirua izatekotan beste zerbaitetan gastatuko dugu".

Ekimen hauen bidez talde sentimendua indartzen dela dio Arranzek: "Guztiok zerbait egiten gaude elkarrekin, beraz, guztion artean kapazak gara gauza handiak egiteko. Lan batzuk bakarka bukaezinak iruditzen zaizkigu, 20 lagunekin errazago egiten dira".

Horregatik aukeratu dute auzolanerako Foru plaza. "Ez da udalaren gauza bat, guztiona baizik. Era honetan gauzak zaintzeko harremana sortzen da espazio publikoetan". Orain arte egindako deialdietan herriko plazako bankuak konpondu dituzte. Eta, lorategiak txukundu. Bestalde, plazako barandak

ere margotu dituzte. Terroreroko iturria berreskuratzeko, aldiz, sasiak kendu dituzte: "Lekua hor dago eta guztiona da. Denok lan egiteko aukerak ditugun gauzak bilatu behar dira, nahiz eta trebakuntza gutxi izan".

Horretarako, igande goizetangera ratu dira. Maiatzean abiatu zituzten lanak. Hala ere, egitasmoan zailtasun bat edo besterekin topo egin dute: "Ez dakizu inoiz zenbat jende etorriko den. Momentuz esperientzia ona da. Ilusio handia daukagu eta jarraituko dugu. Jendearen erantzunarekin dena da posible".

Neguan etenaldia egingo dute, udaberrian auzolanari berriz ekiteko. "Pixkanaka kultura hori finkatzea da gure helburua".

### Tertangako errota

Abuztuan zehar Tertangako aterpetxean Euskal Herriko eta Espainiako hamaika gazte egon dira errota txukuntzen. Izan ere, barruan, teila eta harri asko zituen. Horiek guztiak atera eta eremua garbitu dute. Errotaren inguruko bidea ere zabaltzen egunak eman zituzten. "Belar txarra errotaren paretetan goraino zegoen", azaldu dute parte-hartzaileek.

Errotaren aldameneko putzua ere egokitu dute. Zehazki, harri soberakinak atera eta pilatu dituzte. Baita erreka sasiak kendu ere.

### Santa Marinako aterpetxea

Orozkon, berriz, Santa Marinako aterpetxea eta baselizan mol-

## Urduñako Foru plaza auzolanean atondu dute herritarrek. Baita Tertangako errota, Zolloko hainbat gune, Orozkoko Santa Marina aterpetxea eta baseliza ere.

daketak egiten ari dira maiatzetik.

Santa Marina aterpe eta ermita bat da, atsedeneku eta aterpetxe funtzioak betetzen dituena. Lehen apaizaren etxea zen.

"Duela 30 urte berrizatu zen baina orain apurtzeaz dago", zioen Josu San Pedro alkateak maiatzean. Azpiegitura, ordea, haizeagatik eta jendearen erabilera okerragatik apurtu egin zen. Horregatik, orozkoarren artean konpontzea erabaki zuten. Eta, auzolana antolatzeko bilera deitu. Abuztuan egin zuten lehen auzolan asteburua.

Geroztik, aterpearen teilatu eta barruko karea kendu dute. Asmoa, metalezko txapa bat jartzea da.

### Zolloko auzolan egunak

Aitana Izagirrek aspalditik hartzen du parte Zollon egiten dituzten auzolan egunetan. Azkenekoa, urriaren 26an egin zuten. Urtean bi lan egun jartzen dituzte herria txukuntzeko. Herria garbitzeko denon ardura delako joaten da.

"Auzolanak betidanik egin dira Euskal Herrian, batez ere Zollo moduko herri txikietan", dio. Herriko plazako inguruak, bideak, kanposantua... amankomuna denez, herritarrek elkarlanean arazoak konpontzeko baliatzen zute-lazaldu du.

Zollon, duela 30 urte berreskuratu zuten ohitura: "Urtero San Juan eta Domu Santu egunaren inguruan biltzen gara, jaiak heltzeaz daudenean".

Tradizioari jarraiki, etxebakoitzetik norbait joatea da ohitura, Izagirreren hitzetan: "Baserri askotatik dator jendea, guztiz boluntarioa da". Gutxi gorabehera 20 pertsona batzen dira. Antzina, gizonen lana zen. "Orain, emakume gazteek ere gure aletxoak jartzen dugu. Hori ere auzolanera joateko beste arrazoi handibat da. Izan ere, emakumearen figura txertatzen joan behar gara horrelako zereginetan". Hala, guztien artean plaza inguruko zein bazter atondu behar den erabakitzen dute. Eta behin auzolana bukatuta hamaiketako egitera joaten dira herriko tabernara.

**Hiztegia:** Beharrean<sup>(1)</sup>, lanean/Esparru<sup>(2)</sup>, gune.

+ info: **Bideoa:** Tertangako errota konpontzeko abuztuan egindako auzolana.



Irati

Mendiguren Cosgaya  
HEZITZAILEA

## \_Hankamotz

### Ispiluak

**K**alean, tabernetan, jendartean... parekidetasunerantz urrats handiak ematen ari gare-naren istorioak kontatzen dira, oraindik ere. Eta, barkatu atrebentzia, baina zalantza handiak ditut honekiko.

Emakume izanagatik, bigarren mailako pertsona sentitzera kondenatuak gaude. Salaketan zenbakiak gora doaz, eta erasotzaileen adinak beherantz. Gazteon artean sendotzen ari den kultura da sistema patriarkalarena. Eta, indarkeria sexistak, modu sotilenetan zabaltzen ditu bere atzaparrak, harik eta genero bazterkeriaren aurka gaudenon begi eta buru kritikoenak ere bere sarean atzematen dituen arte.

Indarkeria fisiko gordinek eragiten dute inpaktu sozialik handiena: tratu txar fisikoak, kolpeak, eraiketak, begibistako bortizkeria. Eta ikusezin bilakatzeko den indarkeriaz, zer dugu esateko?

Indarkeria sexista urteko 365 egunetan eta 8.760 ordutan pairatzen dugun egoera da. Edertasun estereotipatuaren barruan ibili beharra, bikoitxide eta familiaren zerbitzura egonez gure buruak balio-gabetzeko dugun betebeharra, gure plazerak eta desioak ingurunearen arabera erabakitze-ko eta alboratzeko joera, ikasle fin eta txintxoak izateko eskakizuna, gauak arriskuz eta bel-durrez bizitzeko mezuak, auto-defentsa baino sumisioa elikatze-ko mezu subliminalak... eta gure buruaz lotsatzeko erakusten dizkiguten ispilu erraldoiak.

Hautsi ditzagun ispiluak.

# \_erreportajea

# Matxismoaren korrontean emakumeak itota

Emakumeen aurkako indarkeriak 53 salaketa eta hildako bat utzi ditu urtariletik hona Aiaraldean. Nola biktimek hala erasotzaileek ez dute perflik ez adin zehatzik.



Emakumeen kontrako eraso psikiko eta fisikoaren geroz eta emakume gehiagok egiten dute planto Argazkia: Iban Pagalday

ERREDAKZIOA | **C** Izar Mendiguren Cosgaya

Azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna izaten da urtero. Izan ere, 1960ko azaroaren 25ean Dominikar Errepublikako Rafael Leonidas Trujillo diktadoreak Mirabal ahizpak hiltzea agindu zuen, bere erregimenaren aurkako ekintzaileak izateagatik. Proposamena, Dominikar Errepublikak egin zuen 1981ean, eta 1999an Nazio Batuen Asanblada Orokorrak onetsi zuen, 60 herrialderen babesarekin.

Emakume askorentzat, ordea, genero indarkeria eguneroko ogia da. Indarkeria matxistak emakume bat hil zuen maiatzaren 23an, Amagoia Elezkano oroiz. 26 urteko neska, 49 urteko mutil-lagunak hil zuen Laudion bizi zirenetxean. Emakume asko dira txar fisiko zein psikikoak jasaten dituztenak. Horietako batzuk bakarrik josten dute auzitara<sup>1)</sup>. Aiaraldean urtariletik hona genero indarkeriaren lotuta 53 salaketa jarri dira.

Laudioko Ertzaintzako komisaldegia Arakaldo eta Arrankudiaga erasoak jasaten ditu. Aiaraldea Egunkariari adierazi diotenez, emakumeek jasaten duten indarkeriarekin lotuta 2008an 33 gertaera edo salaketa jaso zituzten. 2013ari dagokionean, aldiz, 53 bildu dituzte dagoeneko; duela bost urte baino 20 kasu gehiago.

#### Datuak herriak

Herrian herri, bilakaera ezberdina izan dute eraso matxistarekin lotutako salaketak.

Laudion, adibidez, 2011an 13 salaketa tramitatu ziren, 2012an 25 eta aurtengo ikasturtean 14. Amurrión 2008an 9 gertaera tramitatu ziren; handik bost urtera 16 jazo<sup>2)</sup> dira.

Instituzioei dagokionean herrien tamainaren arabera eskakizun kopurua tramitatu da.

Herri handietan, Laudion kasu, 15-20 emakume hurbiltzen dira in-formazio edo babes eske udaleko

**Herrian herri bilakaera ezberdina izan du emakumeen kontrako genero indarkeriarekin lotutako salaketa kopuruak. Hala ere, gertaera guztiak ez dira auzitara eramaten.**

Berdintasun eta Ongizate Sailera. Pepa Iguaran arduradunaren esanetan, aurtien 18 emakume lagundu dituzte: "Bederatzi, 30-44 urte artekoak izan dira, bost 18-29 urte bitartekoak eta beste bostak 45etik gorakoak". Ertzaintzaren arabera, nola erasotzaile hala biktimek ez dute adin, jatorri edo perflik zehatzik.

Aiaran, zazpi emakume bertaratu dira udal txerara, iaz baino bi gehiago. Artziniagan, aldiz, kopurua jaitsi da: 2012an bost kasu bideratu baitzituzten eta aurtien hiru. Baita Okondon ere, urtariletik hona salaketa bat baino ez dute jaso, iaz hiru izan zirelarik. Halere, aintzat hartzekoa da emakume askok jasaten dutela genero indarkeria, eta gutxiak salatu.

Eskualdeari dagokion herrialdeak aztertuta, urtariletik irailera 2012 eta 2013ko epealdia konparatuz ez dago alde handirik. Emakunde jasoak datuetan iaz Araban 425 emakume izan ziren genero indarkeriaren biktime. Aurtien, momentuz, 404 lagunek salatu dute. Bizkaian, aldiz, 2012an 1.556 emakume jarri zuten salaketa. 2013an orain arte 1564 pertsonak jo dute auzitara.

Iazko lehen sei hilekoko datuetan eraso gehienak bikote edo bikoteki-de ohiak eginak direla argi adierazten da. Izan ere, EAEn 2.067 kasu bideratu ziren, Emakunderen arabera.

Erasoen %74 harreran sentimendekin lotuta egon ziren: %37 gizonen bikoteak gauzatu zituen, eta %38 bikote ohiak. Ertzaintzaren informean aipatzen denez salaketan %88 biktimek jarri zituzten. 563 emakume, ordea, ez zuten salaketarik ipini, nahiz eta atestatu po-

liziala ireki.

#### Zapalkuntza motak

Genero zapalkuntza egunerokoan emakume gehienek pairatzen dute. Izeberg batekin konparatuta, mehatxuak, irainak, eraso fisikoak, oihuak, bortxaketak edo hilketak kokatuko lirake "ikusgarri" diren eremuan. Azpian edo atzean, ordea, "ikusezinak" diren ekintza mordoak daude: umiliazioak, txantai emozionalak, kontrolatzeko joera, publizitate edo esamolde sexistak...

Herritarrei laguntza eta babesa eskaintzeko Bizkaiko eta Arabako foru aldundiek, Eusko Jaurlaritzak, Eudelek, Ertzaintzak eta udalek hainbat balabide dituzte eskura: harrera protokoloa, lege aholkularitza, laguntza psikologikoa eta ekonomikoa, babesteko etxebizitzak, arretea telefonikoa, arretea emateko zentroak... Gizon erasotzaileen kontrako laguntza psikologikoa eskaintzeko zerbitzua ere badago.

Ikastetxe zein kaleetan ere ekintza ugari egiten dira jendartea kontzientziatzeko. Horren adibide dira gune beltzen identifikazioak edo ikasleekin egiten diren prebentzio tailerrak.

#### 20 ekitalditik gora

Azaroaren 25aren baitan, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta, makina bat ekitaldi eta aldarrikapen egintza dira eskualde osoan zehar: hitzaldiak, tailerrak, kontzentrazioak...

Azaroaren 21ean Aiarako Emakumeen Topaketak egingo dituzte. Yolanda Urrejolak adierazi duenez, Emakumeen Bizibilak, generoak eta errolak aztertuko dituzte bertan, besteak beste.

Urduñan, berriz, Adi emakume

taldeak kultura ezberdinetako gastronomia aitzakiatzat harturik harremanak eta esperientziak trukatzeko tailerrak egingo ditu. Lehengo saioa datorren larunbatean izango da eta Senegaleko kultura izango dute ardatz.

Genero indarkeriarekin amaitzeko, ordea, bai instituzio eta bai elkarrekin eguneroko jarraituko dutela lanean nabarmentu dute.

## AIARALDEKO EMAKUME TALDEAK

- 1 AURRERAKA (Amurrio)
- 2 HIRISKA (Artziniaga)
- 3 ESKORITAS (Arespalditza)
- 4 GURE ANDERE (Luiaondo)
- 5 AMA BIRJINA ZURIA (Lanteno)
- 6 LAS NIEVES (Aiara)
- 7 MENAGARAIO EMAKUME TALDEA (Menagarai)
- 8 AMETSUTS (Okondo)
- 9 AVILLO (Laudio)
- 10 SOLASTIAR (Laudio)
- 11 JAKARANDA (Laudio)
- 12 EMAION (Laudio)
- 13 MATXINTXU (Orozko)
- 14 ADI (Urduña)
- 15 LORALDI (urduña)

**Hiztegia:** Auzitara<sup>1)</sup>, epaitegieta / Jazo<sup>2)</sup>, gertatu.

+ info: **Bideoa;**

Amagoia Elezkanoaren erahilketaren salaketa Orozko eta Laudion



## EGITARAU HERRIKA AIARA

11.21. OSTEGUNA. 10:00etan **Aiarako emakumeen topaketa**  
TOKIA: Arespalditza

11.16. LARUNBATA. 17:00etan **"Musika, zentzumenak eta gorputza" tailerra**  
TOKIA: Menagarai eskolan  
OHARRA: Tailerra hiru saiotan izango da, 16an, 23an eta 29an

## ARTZINIEGA

11.25. ASTELEHENA. 11:00etan **Emakumearen aurkako bortzikeriaren kale apainketa**  
TOKIA: Herrian zehar

11.25. ASTELEHENA. 19:00etan **Emakumearen aurkako indarkerian kontrako elkarretaratzea**  
TOKIA: Herriko plazan

## LAUDIO

11.20. ASTEAZKENA. 16:30ean **Estresaren aurkako tailerra**  
OHARRA: Tailerra bi saiotan egingo da, 20an eta 27an.  
TOKIA: Kultur etxean

11.25. ASTELEHENA. 19:30ean **Emakumearen aurkako indarkerian kontrako elkarretaratzea**  
TOKIA: Herriko plazan

11.28. OSTEGUNA. 17:00etan **Emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako maratona**  
TOKIA: Kultur etxean

## OROZKO

11.25. ASTELEHENA. 19:30etan **Emakumearen aurkako indarkerian kontrako elkarretaratzea**  
TOKIA: Zubiaur plazan

11.30. LARUNBATA. 10:00etan **Azoka solidarioa**  
TOKIA: Museoa

11.30. LARUNBATA. 12:30etan **"Indarkeria menperatu duten emakumeen hitzaldia baikorrek" testaldia**  
TOKIA: Museoa

## URDUÑA

11.24. LARUNBATA. 13:00etan **Emakumearen aurkako indarkerian kontrako ekitaldia**  
TOKIA: Foru plazan

## AMURRIO

11.23. LARUNBATA. 10:00etan **Autodefentsa ikastaroa**  
TOKIA: Amurrio Antzokian

11.23. LARUNBATA. 20:00etan **Antzerkia: "Palabras"**  
TOKIA: Amurrio Antzokian

11.24. IGANDEA. 12:00etan **Bortzikeriaren kontrako marrazki lehiaketaren sariak**  
TOKIA: Amurrio Antzokian

11.25. ASTELEHENA. 18:30ean **Emakumearen aurkako indarkerian kontrako elkarretaratzea**  
TOKIA: Juan Urrutia plazan

## OKONDO

11.25. ASTELEHENA. 19:00etan **Elkarretaratzea**  
TOKIA: Arenalde parkean

# Erasoen aurrean nola jokatu

Kontrolatua, bakartua edo ikaratu dagoena genero indarkeriaren emakume biktime da, Eusko Jaurlaritzaren arabera. Baita gizon baten indarkeria fisikoak, psikologikoak edo sexualak jasaten denean ere.

Delak, sakelako mezuak, nora eta norekin zoazen azaltzeko eskaerak, gustuko ez duen arropa aldatzeko aginduak, lagun eta familiarekin egotea eragozteko, erruduntzat jotzea, iraintzea, lotsaraztea, txantai egitea... kontrol eta boterea adierazteko mekanismoak dira.

Horregatik egoera ez onartu eta ez justifikatzeko prestatu egin behar dela diote: "Zure bizitzaren eta gorputzaren jabea zara, zuk erabaki behar duzu zer egin. Ezetz esateko eskubidea duzu, ez onartu zu pertsona ahultzat hartzerik, aurre egin!". Norbere burua babesteko era bat da hori. Asko dira egoera hori bizi izan duten edo jasaten ari diren emakumeak: "Hauxe jakin behar duzu, ez zaude bakarrik, ez zara errudun!"

#### Salatu

Erasoren bat ikusi edo jasan baduzu salaketa jartzeko gomendagarria da. Kalean zaudela erasotzen bazaituzte momentuan oihukatzea edo autodefentsa dira tresnarik eraginkorrenak. Laguntza eskatu, salaketa jarri eta osasun zentrorra joan. Era honetan, kasuaren ikertea osatzeko medikuaren informea eskuratzen baita. Salaketa jartzeko herrian he-

**Kontrolatua, bakartua, ikaratu... Fisikoki, psikikoki zein sexualki tratatu txarra jasaten duen emakume oro da genero indarkeriaren biktime, Eusko Jaurlaritzaren arabera.**

#### Laguntza motak

Edozein arrazoiengatik dela ere, 90084011 telefonoan 24 orduz genero indarkeriaren biktime laguntza eskaintzen diete. Zerbitzua doako eta isilpekoa da, arretea anonimoa ematen du, eta zerbitzura deitzean eman beharreko urratsen buruzko orientabidea jasotzen da. Eta, eskura dauden baliabideak luzatu.

Delel 51 hilkuntzatan erantzuten zaie, entzumen urritasuna duten pertsonen arretea emateko zerbitzua barne. Hala, izua, zalantza, segurtasun eza, barruak hustu beharra, erabakiak hartzeko zalantza... usatzen dituzte. Leku segurua izateko telefonoaren fakturan ez du arrastorik zuten. Arabarrek, 900180414 zenbakira hots egin behar dute. Bizkaitarrek, berriz, 900400028 zenbakira.

Ertzaintzak ere 112 telefonoaren edo salaketan bidez laguntza ezberdinak eskaintzen ditu. Horien artean daude urgentziak kasuetan arretea, babes-egin- duen eskabideak bideratzea, salaketak jasotzeko 24 orduko arretea zerbitzua, arretea zerbitzu pertsonalatu, larrialdibisuetarako telefono mugikorra edo babes neurri polizialak. Pultsera lokalizatzaileak ere oso ohikoak dira.

Bortxaketa kasuan gorputza garbitu gabe zuzenean erietxerara joatea gomendatzen da ahalik eta lasterrren.

Erasoren baten lekuko bazara, aldiz, lagundu, salatu, erasotzaile markatu, erasotua babestu... dezakezu.

## EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA

### IKUSEZINA



## SALAKETA DATUAK

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Aiara	1	4	4	1	2	5
Artziniaga	0	1	3	0	2	2
Amurrio	9	10	10	13	11	16
Okondo	0	0	1	1	3	2
Urduña	8	7	4	3	5	6
Laudio	15	18	21	13	25	14
Orozko	0	1	3	2	2	3

\*Arakaldo eta Arrankudiaga-Zollo ez dira Laudio Ertzaintza etxetik kudeatzen



# \_kultura

## Miguel Ibarretxe "Livelüla"

"Musika elektronikoan etiketak jartzea musika espexeratzeta da"

MIGUEL IBARRETXE "Livelüla" k musika elektronikoa egiten du. Arrakasta lortzeari zaila baderitzo ere, disko bat eta hainbat remix kaleratu ditu. Asturias eta Bartzelonako disketxeetan ere kolaborazioak grabatu ditu.



Miguel Ibarretxe "Livelüla" k disko eta abesti ugari egin ditu Argazkia: Miguel Ibarretxe

ERREDAKZIOA | Iera Garaio Ibarrodo

*Livelüla* ezizenaren atzean artista bat ezkututzen da. Kanean eta eskuartearen dituen proiektuak agerian utzi ditu.

### Nondik datorkizu musika elektronikoarekiko zaletasuna?

Musika elektronikora era naturalean iritsi nintzen, nire musika-eklektiko gustu barruan bila-kaera bezala. Iron Maiden entzuten hasi nintzen 12 urte nituela, gero Punk-rock-era pasatu nintzen. 18-19 nituela kitarra ikasten hasi nintzen eta gustuak aldatu nituen, folk eta kitarra klasikora pasatuz. Ondoren, minimalismo klasikotik (Erik Satie) Moby ezagutzera iritsi nintzen. Lehen-dik bere gaiak ezagutzen nituen baina ez nekien nor zen Moby. Hor berraurkitu nuen musika elektronikoa; Kraftwerk, Gorillaz, Prodigy, eta ezagunak nituen taldeak berreskuratuz. Horrela konturatu nintzen nire bizitzako musika ibai bat bezalakoa zela, jaiotza eta bere ibai adarrekin. Nire musika-unibertsoa handia da, gainazaleko urak eta ur sakonak ditu.

### Noiz eta nola hasi zinen musika elektronikoa egiten?

Duela 4 urte hasi nintzen musika elektronikoa egiten, baina orain dela bi urte hasi nintzen

grabatzen. Diskoaren ideia Mikel Laboaren *Haika mutil* kantatik atera nuen sampler batekin etorri zen. Horrekin abesti bat egin, Bartzelonako Psm Music disketxeari eman nion. Gustatu egin zitzaizen.

### Zer sentiarazten dizu musika elektronikoak?

Niretzat musika elektronikoa hizkuntza bera adierazteko era bat da. Nik nire gai gehienak Benito Lertxundik bezala egiten ditut. Desberdintasuna hizkuntza elektronikoa erabiltzen dudala da, ondo erabiltzen dudana erreminta delako. Musika gehiena kitarra akustikoarekin egina dago, gero beste moduan grabatua bada ere.

### Norbaiten laguntza izan al duzu lanak kaleratzean?

Bai, noski, lagunen beharra beti dugu. Nere alboan izan dut Julio Montero baxua jotzen. Bere aholkuekin gauza izugarriak egin ditut. Diskoaren liburuxka María Martínezekin batera egin nuen. Irantzu Urkijo audioarrak ere bere ahotsa jarri zuen Nick Draken *Know* abestiaren bertsioan. Etorkizunean berarekin lan egingo dut, oso profesionala da eta.

Zuzenekoetan Artziniégako Peio Ureta egon da baxua jotzen,

"Diskoa grabatzeko ideia Mikel Laboaren "Haika Mutil" kantatik atera nuen"

"Musika gehiena kitarra akustikoarekin egina dago, gero beste moduan grabatua bada ere"

"Nere xedea ez da arrakasta izatea, nik egindakoarekin gustura geratzea baizik"

eta Maria Ibarretxe lehengusina ahotsa jartzen.

### Musika elektronikoaren zenbat lan argitaratu dituzu?

*Blue Sun* diskoak 13 abesti ditu. EZ&Bai dendan dago salgai 10 eurotan. CDarekin txapa bat eman-goz dizute doan. Bestalde 3 EP Digital ere badituzte. *Back* izenekoak abestiaren hiru bertsio ditu. *I try remix* lanetik *I try* izeneko abestiaren remix bat ta 3 abesti berri ateratu nituen. *Dream away remixes* bildumak, aldiz, "Dream away" abestiaren 3 remix eta 3 abesti berri biltzen ditu.

### Kolaboratzaile gisa ere aritu zara, ez?

Bartzelonako *Sushi&wasabi* taldearen 2 remix egin ditut eta hemendik gutxira Asturiaseko *Myvestal* taldearen remix bat aterako da, chill out moduan egina.

### Zein estilo duzu gogokoen? Eta zein dj?

Ambient edo chill out, baina estilo guztien gainetik musika gustatzen zait. Izenak jartzea, musika espexeratzeta bezalakoa da. Zein dj gustatzen zaidan? Dударik gabe Jose Padilla. Bere *Bella música* diskoak edo bere lehenengo *Café del mar* diskak gustokoak ditut eta asko gainera. Beste aldetik "Afterlife" edo "Carl Cox" gustatzen zaizkit ere.

### Zaila da musika elektronikoa munduan arrakasta izatea?

Ez bakarrik musika elektronikoa munduan, musika munduan edo edozein arlotan arrakasta izatea zail-zaila da. Nere xedea ez da arrakasta izatea, nik egindakoarekin gustura geratzea baizik. Oraingo lortzen ari naiz, gero jendearen onarpena heltzen bada eta honekin batera dirua ematen badit... hobeto. David Lynch-ek hitzaldi batean esan zuenarekin bat dator: "Sormena edertasuna da, ez duzu dirurik behar, gero dirua heltzen baldin bada ondo".

### Non entzun zaitzakegu?

Facebook, Spotify, iTunes, youtube, soundcloud-en... "Livelüla" jarrita aurkituko duzue guztia. Orain proiektu batzuekin nabil, ea urtea bukatu baino lehen baten bat entzuteko parada duzuen!



Txani Rodríguez IDAZLEA

## \_Kamerinoa

Idazteko tren

Hegazkinetan idazteko, hartu arkatza. Bolografoek tinta botatzen dute. Eraman idazteko moduko zerbait. Pape-rra ondo dago. Estu bazabiltza, egur zati batek edo zure besoak balioko dizute. Hauexek dira Margaret Atwood-ek *The Guardian* egunkarian eskaini zituen idazketa metodoaren inguruan zenbait aholku. Pentsa genezake, beraz, idazle kanadiar hau hegazkinetan zebilela maiz.

Laudioarrak, aldiz, trenean mugitzen garen biztanle mota bat gara; aldiriko trenetan, hain zuzen ere. Beste garraio moduak erabil ditzakegu, bai noski, baina, batik bat trenetara jotzen dugu.

Nik, adibidez, Bilbora trenez joaten eskarmetu handia dudanez, bidaiatze-metodo pertsonal bat jorratu dut ere bai. Irakurri ala idatzi nahi izanez gero, nasetan gelditzen naiz azken momentura arte.

Horrela, noren alboan eseri hautatu dezaket. Lasai irakurtzeko, onena ezezagun batekin bidaiatzea da. Treneko leihotik begiratzuz, istorio askoren abiapuntuak xedatu izan ditut, hori dela eta beti daramat poltsan libretaxoren bat...

Gure bidaiak errutinarioak dira baina irakurle bakoitzak bere liturgiak edukiko dituelakoan nago.

Abenturaren antipodatan finkatuta daude gure bidaiak, baina liburuei esker xarma aurkitzen diegu desplazamendu errepikakor horiei.

Metodo bereziak eraiki ditugu monotoniaren aurka. Margaret Atwood harro sentituko zen guri begira.

# \_kultura

## \_kultur leihoa

**WEB-GUNEAN KULTUR PROPOSAMEN GEHIAGO IRAKURGAI ETA ENTZUNGAI** [www.aiaraldea.com/proposamenak](http://www.aiaraldea.com/proposamenak)



LITERATURA  
**ATZERRI**  
Irati Maraño.

"Demagun 1985eko uztailearen 6a dela, eta orduko idazle promesadun bat bere koadrilarekin dagoela, parrandan. Azkenada, ordea, biharamunean aurrera eramango duen ekintzakilagunengandik, familiarengandik, herrietik... aldenduko du-eta



MUSIKA  
**KOKEIN, "IZAN"**  
Endika Diaz.

"Nekez aurkitu daiteke Euskal Herriko egungo panorama musikalean Kokein taldeko Zalao bezain ondo bere ahotza kontrolatzen duen abeslariarik. Intentsitate eta erregistro desberdinak erreztasun handiz menperatzen ditu..."



**BIDEOA: "Baile en el sindicato" filmaren grabaketa** Maraño ikusgai webgunean



**Iazko edizioan tabernetan egindako kontzertuetako bat** Argazkia: Javier Ruiz Lili

## Musikaren Astea egingo dute Urduñan, zazpigarrenez

ERREDAKZIOA | Eunate Molinuevo

Musikaren zazpigarren astea antolatu dute Liborio musikarien kolektiboak eta Urduñako udalak.

Azaroaren 15etik 24ra bitarte askotariko musika doinuak entzun ahal izango dira Urduñako hainbat txokotan.

Azaroaren 15ean, umeen egunean, txikienek musika gertutik

senti dezaten Santa Zezilia Bandak kontzertu didaktikoa eskainiko du. Santa Maria elizan izango da, 20:00etan, eta neska-mutilek aktiboki parte hartuko dute, banda-ekin batera abestuz.

Horrez gain, "Gulliver Liliputen" ipuin musikala entzun ahal izango da.

### Kontzertuak eta poteo musikala

Azaroaren 16an, larunbatean, kalea girotzeko kontzertuak egingo dira, urduñarrei musika hurbiltzeko asmoarekin. Hiru leku eta ordutan izango dira: 18:00etatik 20:00etara Gernika plazan; 20:00etatik 22:00etara Barria eta Burgos kaleen arteko plaza txikian; eta 22:00etatik 00:00etara Foru plazan.

Igandean, aldiz, poteo musikala egingo dute. Iazko arrakasta ikusita, aurten bi egunetan izango dira kontzertuak: 17an eta 23an 13:00etatik 15:00etara. Igande bakoitzean 8 taldek joko dute aldi berean hiriko hainbat tabernatan.

Azaroaren 22an, ostiralean, musika-taldeen eguna ospatuko dute. Santa Zeziliaren omenez doinu, ahots eta estilo ezberdinak uzartuko dituzte Santa Maria elizan 20:00etan hasiko den emanaldian.

Azaroaren 23an, berriz, Foru plaza eta alde zaharreko kaleak agertoki izango dira egun osoz. 13:00etatik 15:00etara poteo musikala egingo da eta 17:00etan Fita Fik euskal musika-eskolako ikasleek kalejira egingo dute. Ondoren, 20:00etan, Liborio Kolektiboko taldeek ez ezik, poteoan parte hartu duten musikariek ere joko dute Jam Session saioan, Foru plazan.

Azaroaren 24an emakumeen aurkako genero indarkeria musikaren bidez salatuko dute txistu kalejira eta bandarekin. Seikote bategen minuetak abestuko du. Jarraian, ekitaldia gauzatuko da, eta amaiteko bandak kontzertu txikia eskainiko du.

### Mateo Balbuena miliziano komunista omendu dute Amurrión

Mateo Balbuena (Leon, 1913) miliziano komunista omendu zuten pasaden ostegunean Amurrioko kultur etxean. *La decadencia del capitalismo, reflexiones de un centenario* liburua argitaratu berri du Balbuenak; kapitalismoaren krisialdiari buruzko lana. Omenaldia Amurrioko udalak eta alderdi komunistak egin zioten, 100 urte hauetan egindako lanagatik.

### Five Corners taldeak kanta berria aurkeztuko du Saratxoko jaietan

Amurrioko Five Corners musika taldeak ikasturteko lehen kontzertua emango du Saratxoko jaietan. Azaroaren 29an izango da. Aurreratu dutenez, taldean hainbat aldaketa egin dituzte eta kide berriez gain autoekoitzitako abesti bat aurkeztuko dute Saratxoko festetan.

Kontzertuak prestatzeko hamar hilabete eman dituzte abestian lantzen.

### AISZIRIMOLA: maitatasuna

Entzun Aiaraldea Irratian "maitatasunaz" egindako irratsaioa



**EDORTA Moreno**  
**HISTORIAZALEA**  
**\_Lurpetik**

Aiaraldeko historia ezkutua

*Historia liburuak, artikulak, dokumentalak eta bestelakoak ikusi, irakurri edo esku artean izaten ditugunean ekidin ezin dezakegu halako urruntasun bat sentitzea kontatzen zaizkigun gai eta gertaerakiko, denboran nahiz espazioan. Ezer gutxi dakigu gure historia hurbilenaz, nik neuk ere, historialaria, edo historialari ikaslea, izanik ere ez dakit askoz gehiago. Gure eskualdeaz egin izan diren ikerketak ez dira ez oso ugariak ezta oso ezagunak ere eta Aiaraldeko iraganari so egiten diogunean zulo beltz eskerga bat baino ez dugu gure aurrean aurkitzen. Horregatik, Aiaraldeko historiaren inguruko zutabetxo hau egitea eskatu zidatenean aurrean lan titaniko bat nuenaren sentsazioa atzeman nuen, ez da gutxiagorako ere.*

*Halere, pentsatzen jarrita, badira lantzeko moduko gai interesgarriak, zerranda txiki bat aurkezten dizuet hemen ea, niri bezala, kuriositatearen xomorrotxoak garuneko arrakala ezkuturen batean kosk egiten dizuen: Elexazarreko aztarnategi erromatarra, Luiaondoko Maroto zuhaitza soldaduskaren mugarri, Zaldueño eta Castro sendien arteko liskarrak Urduñan guda banderizoetan, Tomas Zubiaur audioarra Pancho Villaren albaitari izan zenekoa, Jesus de Galíndez Amurrioko semea AEBtako zerbitzu sekretuentzat lanean aritu zela, Urduñako kontzentrazio esparrua...*

## GURASOAK & sare sozialak

\_edukia: Gazteen erabilera ohiturak, aukerak eta arriskuak, sare sozialak vs identitatea, profilen sorrera ...

#ume2013

**Laudio**  
Lanbide Heziketa Udak kastetxea

\_iraupena: 3 saio, 6 ordu  
\_hasiera\_data: azaroak 26  
\_izen-ematea: azaroaren 16tik 25era  
\_prezioa: 10€

**UDAZKENEKO MULTIMEDIA ESKOLA 2013**

**aiaraldea.com**

# kirola

## JUDO: Amurrioko Nazioarteko XX. Judo Txapelketa jokatu da larunbatean

Larunbatean, azaroaren 16an, Nazioarteko Judo txapelketa jokatu da Bañueta kiroldegian. Aurtengoa, hogeigarren edizioa izango da. Goizean zein arratsaldean lehiatuko dira adin eta kategoria ezberdinetako gizonezko zein emakumezkoak. Guztira, herrialde ezberdinetako 250 judokak hartuko dute parte.



## MENDIA: Okondon Mendi Jardunaldiak egingo ditu azaroan zehar Ganekogorta taldeak

Ganekogorta taldeak Mendi Jardunaldiak antolatu ditu. As-teburuan hasi ziren eta datorren astera arte iraungo dute.

Besteak beste, hitzaldiak, mendi irteerak zein erakusketak egingo dituzte.

Azaroaren 24an, "Okondo Ibarra, II. Ibilaldi Neurtua" progarekin bukatuko dira jardunaldiak.

## ESKUPILOTA: Euskadiko Federazioak lau t'erdiko txapelketako partidak egingo ditu bihar Aretan

Euskadiko eskupilota federakundeak lau t'erdiko txapelketako partidak egingo ditu bihar Aretako frontoian. Bertan, sei pilotari onenak eta federakundeak teknikoki hautatutako bik hartuko dute parte.

Txapelketa iragan astean hasi zen, eta abenduaren 13an amaituko da. Partidak ostiralero izango dira.



Julen  
Reketa  
MENDIZALEA

## —Helmugari so

*Bizitza extremoa eta extrem bizitza*

**O** pilak erostera joan nintzen, eta hara non "funny extreme" izeneko magdalenak aurkitzen ditudan okindegiko apaletan.

Magdalena extreme-ak datatuaz izenaren anekdota bat zirudiena, gure gizarteak bizitza eremu askotan bizi duen egoera "extrem" a nire hausnarketa bihurtu zen.

Ekonomilari batek esanda-koaz gogoratu nintzen - "indarraren dagoen eredu sozioekonomikoa "extreme" egoerara iritsi da eta giza printzipioetan oinarrituriko alternatibak garatu eta ezarri behar dira, biziraun nahi badugu behintzat" - eta orduan, "funny extreme" magdalena goxo hauek, gaur egun behar genuen alternatiba ez zirela egiaztatu nuen. Beraz, hurrengo aldi batean "amamak" bere esku leunez eginko opilak erosi eta berezko zapo naturalaraz gozatzeaz gain, gure bizirauteko alternatiba sortu.

Nire ogibidean (mendiko gidaritza) mundu honetara ere aspaldian "extreme" izena eta izana gailendu dela iruditzen zait; Naturarekin erlazioz gertatutako jarduerarekin sarritan lehiaketa hedatu da. Naturak berezkoa duen neurri eta erritmoaren aurka doala iritzi dut.

Gazteei begira, mendiaren edo naturaren baitan diren jardueretan, ezaugarri eta printzipio naturaletan hezteko moduan konprenitu eta maitatu dezaten lehenik, eta ondoren, "extreme" egoerei aurre egiteko gaitasunetan prestatu. Lehiatzeko erabakia hautu pertsonala izan dadila, eta ez naturala.

## IGERIKETA

### "Lehiatzea oso gustuko dut. Txapelketetan beste pertsona bat bilakatzen naiz"

EIDER SANTAMARIA (Laudio, 1990) igerilaria da. Espainian, Europan zein mundu mailako txapelketetan hartu du parte. Errendimendu altuko zentro batean sei urtez ibili zen ikasle eta kirolari gisa prestatzen. Lesio bat medio, ordea, igeri egiteari utzi behar izan dio. Hala ere, ez zaio ilusiorik ez animorik falta.

ERREDAKZIOA | Itziar Urkijo Cela

EIDER SANTAMARIA igerilari laudioarra da. Espainiako txapelketan urrezko domina jantzi zuen .1.500 metro libreetan. 2010ean, Europako txapelketan zortzigarren sailkatu zen.

**"Igeri egitea, kirol edo ariketatzat hartua", dio hiztegiak. Eider Santamariak zelan definituko luke igeriketa?**

Igeriketa bizimodu mota bat da. 5 urte nituenetik 14 urte bete arte nire helburu bakarra igeriketa-ekin gozatzea izan zen. 14 urte nituela, igeriketa begiratzen hasi nintzen. Nire bizitzaren zati bat bilakatu zen igeriketa. Urte askotan zehar eta bizimodu horrek dakartzan alde on zein txarrak bizi izan ditut denboran tarte horretan.

**Espainiako txapel-dun behin baino gehiagotan, Europa mailan fin, lorpen edo orotzaren bat hautatu beharko bazenu zein izango litzateke?**

Lehiatzea oso gustuko dut, eta

txapelketetan beste pertsona bat bilakatzen naiz.

Txapelketa egunak nire kirol bizitzako momenturik motibagarrienak izan dira, eta orotzaren onak dauzkate bai espainiako, europako zein munduko kopeetan. Esperientzia askorekin gertatzen naiz, lehiatu ostean egindako marka begiratzean sentitzen nuen poztasunarekin.

Dena ondo zihoala eta emaitza hobekia lortzen ari nintzela ikusteak animoa pizten zidan. Momentu bat aukeratu beharko banu 2009ko Erromako Munduko Txapelketa izango litzateke, bertan bizi izan nuen egun bakoitzarekin gelditzen naiz. Batez ere, eta txapelketa horretan egoteak sentiarazi zidana gutxitan bizitako sententzia bat izan zelako.

**"Fisikoki zein psikikoki asko suposatzen duen kirola da, baina pena merezi du benetan nahi duzuna bada"**

ere bizi izan ditut, presioa, nahi eta ezina...presio altuegia ordaindu dudana edo ez-eri buruz hitz egitean, esan dezaket zu ondo bazaude dena dagoela ondo, gauzak okertzen hasten direnean, ordea, benetan pena merezi duena zer den egiaztatzen duzu.

**Goizeko seietan entrenatzea da ohikoa kirol honetan, gogotsu gainera. Igerilarien konposaketa beste pertsonenarekin alderatuz, ezberdina da?**

Bai, inolako dudarik gabe. Urte horietan zehar nire eguna goizeko seietan hasi eta arratsaldeko zazpitan bukatzen zen. Entrenatu, ikasi eta berriz ere entrenatu. Plangintza hori zuen nire bizitzak.

Sakrifizio ugari, fisikoki zein psikikoki asko suposatzen duen kirol bat da, baina denak merezi du pena benetan nahi duzuna bada.

**Goi mailako errendimendu zentro batean eman dituzu aktibo egon zaren azken urteak. Zer zen gogorra, uretan ematen**



**Nazioartean lehiatzeak presio handia eragiten du?**

Igeriketa munduak dakartzan gauza onez aparte txarrak

\_kirola

## ATLETISMOA: Emakumezkoen talde bat sortu dute Laudion



Emakume atleta gazteak 2012ko krossari ekiteko prest Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | Ane Intxaurreaga

Azaroaren 6an martxan jarri zen Laudio Atletismo Taldeko ekimen berria, emakumez osaturiko korrika taldea, hain zuzen ere.

Adin eta maila guztietako emakumeen prestakuntza sustatzeko sortu da. Ekimen honen sortzailea Peli Ortiz de Zarateda, entrenatzaile

lea izango dena.

Azaldu duenez, hasiera batean prestakuntza honen helburua urtarrilaren amaieran egingo den Laudio Herri Krosean parte hartzea da. Hala ere, ez da derri gorrezkoa izango. 18:00etan hasita, ekimen honen arduradun dire-

nek, Ellakurin entrenatuko dituzte emakume korrikalariak.

### Bi entrenamendu asteko

Astean bi hitzordu edukiko dituzte. Bertan, bakoitzaren behar eta nahietara egokitutako entrenamenduak egingo dituzte. Doa-

ko ekimen berri hau azaroaren 6an hasi zen, baina interesatuak kontaktuan jarri eta egitaspora batu daitezke. Horretarako, bi posta elektronikoko luzatu dituzte: atletismolaudio@euskalnet.net eta peli.orza@gmail.com.

### Emakume korrikalariak, gora

Adierazi dutenez, geroz eta emakume gehiago dira kalera korrika egitera ateratzen direnak, Laudion zein Euskal Herriko beste edozein txokotan. Batzuk, lehiatzea dute helburu. Beste batzuk, aldiz, ondo pasatu eta osasuna zaintzea.

Historian zehar, ordea, emakume asko izan dira kirol arloa alde batera utzi dutenak gizarteak sortutako estereotipo sozial eta kulturalengatik. Estereotipo horiek, baina, aldatuz joan dira, eta atletismo talde honek diskriminazioak alde batera utzi nahi ditu, entrenatzaileen hitzetan.

Euskararen erabilera sustatuz, era berean, ekimen honen bidez modu osasungarri eta parte-hartzaile batean tokiko kirol hau ezaugarazi nahi dute.

Laudiokoa ez da, ordea, elkartu den emakume korrikalarien talde

bakarra. Izan ere, Amurrioko Re-for gunean larunbatero, eskualdeko hainbat emakume elkartzen hasi dira kirola egin asmoz.

Isa Diaz de Ugartek azaldu duenez, asmoa Donostian egiten duten "Lilatoia" lasterketan parte hartzea da: "Poliki-poliki hasiko gara, neska talde ireki eta ezin jatorrago gara, animatu eta etorri gurekin".

Era honetan, nahi dute, emakumeak elkartzea, aisia haiantzako antolatzea eta gozatzea.

### Euskadiko Kross Txapelketa

Bestalde, Laudio Atletismo Klubak urtero antolatzen duen Laudio Ibarra Krossa dataz aldatuko duela jakinarazi du.

Zehazki, otsailaren 9an egingo dute txapelketa. Aurtengoa, 29. edizioa izango da.

Ekitaldiaren eguna moldatzearen arrazoia da Euskal Herriko Atletismo Federakundeak Euskadiko Krossa antolatzeko aukera eskaini diela.

Adierazi dutenaren arabera, era honetan, Laudio Atletismo klubak urte luzez erakutsitako ahalegin eta esperientzia eskertu eta aitortu nahi dute.

# BIZI koloretan!

Ze koloretakoak dira zaborrak jasotzeko erabiltzen ditugun zaborrontziak?

- Morea, gorria eta horia
- Berdea, horia, urdina eta grisa
- Urdina, laranja, berdea eta horia

Erantzun egokia ezagutzen baduzu bizikoloretan.com sakatu eta naturari laguntzeaz gain, gure eskualdeko produktuez osaturiko saskia lortzeko aukera izango duzu. Saskia 90 eurotan baloratuta dago.



AIARAKO ESQUALDEA  
CUADRILLA DE AYALA



ECOVIDRIO  
ASOCIACIÓN SIN ÁMBITO DE LUCRO

# \_Herriko plaza

## \_agurrak



### Andere

Zorionak marisorgin! Atzo egin zenituen 4 urte eta argazkian diozun bezain handia egin zara! Muxu pila bat!  
**Izei, aita eta ama.**



### Onintze

Zorionak txikitina, ondo pasa 28an zure eguna dela! Maite zaitut!  
**Ainhoa Yungitu.**



### Mari

Azaroaren 11 egun berezia delako bai zuretzat eta baita guretzat ere... Zorionak amama! 69 muxu goxo!  
**Ainara Berrokal**



### Ione

Espero dugu zure egunean argazkian bezain ondo pasatzea! 22 tirakada handi gehien gustatzen zaizun moduan ospatu... SUAAA!

**\_BIDALI ZUREA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia [agurrak@aiaraldea.com](mailto:agurrak@aiaraldea.com) helbidera azaroaren 23a baino lehen eta azaroaren 28ko alean argitaratuko dugu!



### Martxelo, Maia eta Presi

Mila kilo zorion dizuegu eskaintzen (...)Baietz asmatu zenbat dituzuen betetzen, zergatik ez ditugu kalimotxo kontatzen? Besarkada handi bat!  
**Terry, Karra eta Pibi**



### Amaia

Madriren egonda ere ez zaitugulako ahazten ZORIONAK!  
**Lagun kuadrilla**



### Rosa Mari

Zorionak! Famili eta lagunekin ospatuko duzulakoan... Musu bat!  
**Familia**



### Nekane

Zorionak zaren bezalako izateagatik eta zure irriagatik. Maite zaitugu!  
**Andima eta Garrastatxu**

## \_botikak

### AZAROAK 14

Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)  
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo 11)

### AZAROAK 15

Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)  
Amurrio: PEREDA (Landako 28)

### AZAROAK 16

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)  
Amurrio: PEREDA (Landako 28)

### AZAROAK 17

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)  
Amurrio: PEREDA (Landako 28)

### AZAROAK 18

Laudio: MENOYO (Ugarte 5)  
Arespalditza: CACERES GRAUPERA (Udaletxeko plaza 9)

### AZAROAK 19

Laudio: EGIA (Zumalakarregi 13)  
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

### AZAROAK 20

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)  
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

### AZAROAK 21

Areta: AIS (Gasteiz 2)  
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

### AZAROAK 22

Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)  
Amurrio: QUIJANO (Landaburu 7)

### AZAROAK 23

Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)  
Amurrio: QUIJANO (Landaburu 7)

### AZAROAK 24

Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)  
Amurrio: QUIJANO (Landaburu 7)

### AZAROAK 25

Areta: AIS (Gasteiz 2)  
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo 11)

### AZAROAK 26

Laudio: MENOYO (Ugarte 5)  
Amurrio: PEREDA (Landako 28)

### AZAROAK 27

Laudio: EGIA (Zumalakarregi 13)  
Arespalditza: CACERES GRAUPERA (Udaletxeko plaza 9)

### AZAROAK 28

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)  
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

### AZAROAK 29

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)  
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

## \_merkatu txikia

### ALOKAIRUAN

**PISUA GASTEIZEN**  
San Ignacio de Loyola kalean  
60 metro karratu.  
2 logela  
550 €  
653718732  
[astakirota@gmail.com](mailto:astakirota@gmail.com)

### SALGAI

**MENDIKO BOTAK**  
Scarpa Denali XT 26.5  
Egoera onean, dyamir fijazioetarako  
Prezioa: 40€  
625706914 (Artziniega)

**MENDIKO BOTAK**  
Asolo Route GTX 40 2/3  
Alpinismorako. Ia erabili gabe.  
Prezioa: 90€  
625706914 (Artziniega)

**PATINAK**  
Lineako lau gurpildun patinak.  
Iaz erosita, behin bakarrik erabilia. Oso egoera onean. 38 oin taila.  
Prezioa: 15€  
635202178 (Laudio)

**GURPILDUN AULKIA**  
Elektrikoa  
egoera onean  
1.500 € (negoziagarria)  
685723960 (Laudio)

### MOTOALTZURRA SALGAI

Honda markakoa, 6,5 cv  
Kutxillak % 90ean  
Bi abiaduratako martxak aurrera eta bat atzera  
616256632

### METRONOMOA

WITTNER Piccolo  
Egoera onean,  
jatorrizko kutxarekin.  
Prezioa 15 euro  
[facebook.com/comprameloenurduna](https://www.facebook.com/comprameloenurduna)

### BIDEOKAMERA

HANDYCAM DVD203E  
Egoera onean, zaindua  
(5 orduko erabilpena)  
Osagarriak barne  
Prezioa negoziagarria: 200 euro  
[facebook.com/comprameloenurduna](https://www.facebook.com/comprameloenurduna)

### PLATAFORMA BIBRAKORRA

VIBROMAX YV20.  
150 W-TAKO 2 motore  
Egoera onean, salgai leku faltagatik  
Jatorrizko prezioa 1200 euro  
Prezioa: 500 euro  
Etxera eramateko prest nago.  
[facebook.com/comprameloenurduna](https://www.facebook.com/comprameloenurduna)

### BILA

TXAKURRARENTZAT KOTXE  
TRANSPORTINA  
Artzain txakurrarentzako bigarren eskuko kotxerako transportina ero si nahian nabil.  
[sorgintxo\\_txori@hotmail.com](mailto:sorgintxo_txori@hotmail.com)  
677083251 (Arrankudiaga)

## etxaurre

inmobiliaria

**PISUA SALGAI ARRANKUDIAGAN**  
Prezioa: 155.000 €  
65 m², 2 logela, bainugela, kanpoaldera, igogailua, egoera onean, altzariz hornitua.  
Erref.: 167227

**PISUA SALGAI OROZKON**  
Prezioa: 270.000 €  
88 m², 3 logela, 2 bainugela, kanpoaldera, garajea, igogailua, trasteleku, sukalde amerikarra, balkoia, 2010.urteko erakuntza.  
Erref.: 167378

**PISUA SALGAI LAUDION**  
Prezioa: 180.000 €  
95 m², 4 logela, 2 bainugela, berritzeko, igogailua, terraza, trasteleku.  
Erref.: 167351

**PISUA SALGAI URDUÑAN**  
Prezioa: 110.000 €  
71 m², 2 logela, bainugela, kanpoaldera, trasteleku, balkoia, berritutakoa, eguzkitsua.  
Erref.: 167248

**PISUA SALGAI OKONDON**  
Prezioa: 148.500 €  
82 m², 3 logela, bainugela, kanpoaldera, berritzeko, balkoia, egongela zabala.  
Erref.: 7

**PISUA SALGAI AMURRION**  
Prezioa: 234.000 €  
90 m², 3 logela, bainugela, kanpoaldera, igogailua, trasteleku, sukalde, balkoiarekin.  
Erref.: 167269

**PISUA SALGAI LUIAIONDON**  
Prezioa: 239.000 €  
92 m², 3 logela, 2 bainugela, kanpoaldera, terraza, trasteleku, igogailua, garajea, lorategia.  
Erref.: 167258

[www.etxaurre.com](http://www.etxaurre.com)  
Tlfnoa: 94 672 85 50

## \_herriko plaza

# \_agenda

### 11.14 OSTEGUNA

18:30 AUDIO  
**SOLASALDIA**  
GazTertulia, nokatoka  
Kultur etxean

19:00 AUDIO  
**TAILERRA**  
Berbalagun: sukaldaritzta  
tailerra  
Museo Gastronomikoan

19:00 ARETA  
**KONTZERTUA**  
Hutsa bikote akustikoa  
Kultur etxean

### 11.15 OSTIRALA

17:00 AUDIO  
**HITZALDIA**  
Fracking ez Aiaraldea  
Gaztetxean

18:00 URDUÑA  
**HAUSPOAREN JAIALDIA**  
Sukaldaritzta begeta,  
Endemaño eta Habemus  
Papam  
Gaztetxean

19:00 AUDIO  
**TAILERRA**  
Gurasolagun: umeentzat  
tailerrak  
Kultur etxean

19:00 OROZKO  
**ZINEMA**  
Laburmetrai emanaldia  
Donibane Aretoa

17:00 AUDIO  
**HITZALDIA**  
Langile mugimendua eta  
preso politikoak  
Gaztetxean

19:30 ARETA  
**TXAPELKETA**  
Euskadiko Federazioa,  
lau t'erdiko pilota partida  
Frontoian (3€)

20:00 URDUÑA  
**MUSIKAREN ASTEA**  
Santa Zezilia banda  
Santa Maria elizan

18:00 URDUÑA  
**MUSIKAREN ASTEA**  
Kale kontzertuak  
Gernika plazan



19:30 LEZAMA  
**JAIK**  
Herri arteko herri kirolak  
Herriko plazan



0:00 LEZAMA  
**JAIK**  
Diskodantza  
Herriko plazan

22:00 AUDIO  
**KONTZERTUA**  
Bad Sound System, Duran  
Gaztetxean

### 11.16 LARUNBATA

09:00 AUDIO  
**MENDI IBILALDIA**  
Berbalagun: Laudiotik  
Bilbora oinez  
Herriko plazan

09:15 URDUÑA  
**ODOL EMATEA**  
goiz osoan zehar  
Foru plazan

11:00 URDUÑA  
**TAILERRA**  
Munduko janariak:  
Senegal  
Kultur etxean

17:30 LEZAMA  
**JAIK**  
Haurrentzat jolasak  
Herriko plazan

22:00 URDUÑA  
**MUSIKAREN ASTEA**  
Kale kontzertuak  
Foru plazan

22:00 LEZAMA  
**JAIK**  
Herri afaria  
Herriko plazan

### 11.17 IGANDEA

09:00 OROZKO  
**TXANGO HISTORIKOA**  
Arrolamendiko mintegi  
zaharra  
Museotik abiatuta  
13:00 URDUÑA  
**MUSIKAREN ASTEA**  
Poteo musikala  
Hainbat tabernetan

### 11.19 ASTEARTEA

19:30 AUDIO  
**HITZALDIA**  
Autoenplegua  
Erabileraren anitzeko aretoa

### 11.20 ASTEAZKENA

16:30 AUDIO  
**TAILERRA**  
Estresaren inguruko  
tailerra  
Kultur etxean

### 11.22 OSTIRALA

17:00 AUDIO  
**HITZALDIA**  
Fracking ez Aiara  
Gaztetxean

20:00 URDUÑA  
**HITZALDIA**  
Erresistentzia kiroletan  
elikadura  
Kultur etxean

20:00 URDUÑA  
**MUSIKAREN ASTEA**  
Herriko taldeak  
Santa Maria elizan

22:00 AUDIO  
**KONTZERTUAK**  
H.Canino eta Duran  
Gaztetxean

### 11.23 LARUNBATA

11:00 AUDIO  
**ERAKUSKETA**  
Euskal Herriko  
pegatinak  
Gaztetxean

13:00 URDUÑA  
**MUSIKAREN ASTEA**  
Poteo musikala  
Herrian zehar

17:00 URDUÑA  
**MUSIKAREN ASTEA**  
Fi ta fik-ekin kalejira  
Herrian zehar

17:00 AUDIO  
**HITZALDIA**  
Bilboko grebalari  
auzipetuak  
Gaztetxean

12:00 ARTZINIEGA  
**ERAKUSKETA**  
Txarriboda  
Etnografiako museoan

20:00 URDUÑA  
**MUSIKAREN ASTEA**  
Musika taldeekin Jam  
Session  
Herrian zehar

22:00 AUDIO  
**KONTZERTUAK**  
Aizkorakada eta Bad  
Sound System  
Gaztetxean

### 11.24 IGANDEA

10:00 URDUÑA  
**MUSIKAREN ASTEA**  
Txistularien kalejira  
Herrian zehar

10:00 AUDIO  
**IKASTAROA**  
Autodefentsa  
Granja kiroldegian

14:00 URDUÑA  
**TXAPELKETA**  
Mendi duatloia  
Foru plazatik

# \_ikusmiran

## ZINEMA

11.16 LARUNBATA

"LA BICICLETA VERDE"  
LAUDIOKO LHUI  
17:30etan eta 20:00etan / 2€

11.17 IGANDEA

"JUSTIN Y LA ESPADA DE  
VALOR"  
AMURRIO ANTZOKIA  
17:30etan / 3.6 €

"EL ULTIMO CONCIERTO"  
AMURRIO ANTZOKIA  
20:00etan / 4,8 €

11.18 ASTELEHENA

"EL ULTIMO CONCIERTO"  
AMURRIO ANTZOKIA  
20:00etan / 3.6€

11.23 LARUNBATA

"ANTES DEL ANOCHECER"  
LAUDIOKO LHUI  
17:30etan eta 20:00etan / 2€

11.24 IGANDEA

"AZTI TXKIA"  
AMURRIO ANTZOKIA  
17:30etan / 3.6 €

"LAS BRUJAS DE  
ZUGARRAMURDI"  
AMURRIO ANTZOKIA  
19:30etan / 4,8 €

11.25 ASTELEHENA

**ZINEFORUMA**  
ARTZINIEGAN  
17:30etan / dohan

"LAS BRUJAS DE  
ZUGARRAMURDI"  
AMURRIO ANTZOKIA  
20:00etan / 3.6 €

## BEREZIAK

### OKONDO

**MENDI JARDUNALDIK**  
GANEGOGORTAMENDITALDEAK ANTOLATUTA

11.14. OSTEGUNA. 19:00etan  
"Basoa eta bioaniztasuna" hitzaldia  
HIZLARIA: Txemi Martinez  
TOKIA: Okondoko eskola

11.15. OSTIRALA. 19:00etan  
"Perretxikoak, basotik mahaira" hitzaldia  
HIZLARIA: Jose Antoino Muñoz  
TOKIA: Okondoko eskola

11.16. LARUNBATA. 09:00etan.  
"Onddo espeziak bilketa eta katalogatzea"  
IRTEERA: 9:00etan  
KATALOGATZEA: 17:30etan

11.17. IGANDEA. 12:00etan.  
"Mikologia erakusketaren eta gastronomia  
tailerra"  
HIZLARIA: Jose Antonio Muñoz  
TOKIA: Orozkoko eskola

11.21. OSTIRALA. 19:00etan.  
"Mendiari buruzko zinema  
euskaraz"  
TOKIA: Okondoko eskola

11.24. IGANDEA. 08:00etan.  
"Okondo Ibarra II. Ibilaldi Neurtua"  
IRTEERA: Okondoko frontoitik

### AMURRIO

**XII. MENDI ETA NATUR JARDUNALDIK**  
MENDIKO LAGUNAKEK ANTOLATUTA

11.23. LARUNBATA. 08:00etan  
"Jaizkibelgo itsas labarrak ezagutzeko  
txangoa"  
IRTEERA: Katekesi aretotik

11.29. OSTIRALA. 19:30etan  
"Porrotaren balioa" dokumentala  
HIZLARIA: Simon Elias  
TOKIA: Katekesi Aretoan

11.30. LARUNBATA. 19:30etan  
"Frackingaren inguruko hitzaldia"  
HIZLARIA: Fracking ez Aiaraldea  
TOKIA: Katekesi Aretoa

## \_ezin galdu



**EUSKARAZKO LABURMETRAI TAILERRA OKONDON:** Larunbatetik aurrera laburmetrai ikastaroa egingo da Okondoko kultur etxean. Azaroak 16 eta 23an zein abenduak 14, 21 eta 28an izango dira saioak, 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea doakoa da.

## \_merkatua

BASERRITARREN AZOKAK  
AIARALDEAN

**OSTEGUNA**  
AUDIO Herriko Plazan  
DENETARIK

**OSTIRALA**  
AMURRIO San Anton plazan  
DENETARIK

**LARUNBATA**  
URDUÑA Hileko 1º larunbata  
Foru plazan  
OROZKO Herriko Plazan  
OGIA ETA GAZTA

\* Hamabostaldi honetan ez dago  
Azoka berezirik

PREZIO ORIENTAGARRIAK  
MERKATUETAN


**BARAZKIAK**

Patata	1-1.5 €/kg
Letxuga	0.80-1 €/kg
Azelgak	2 €/kg
Tipulak	3 €/kg
Frijitzeko piperra	1-1.5 €/kg
Pipermorroa	6 €/kg
Kalabaza	2 €/kg
Kuiatxoak	0.70 €/kg
Indabak	8-10 €/kg
Porrua	1.50-2 €/sorta

**BESTEAK**

Arrautzak	3 €/dozena
Gari ogia	2.30 €/kg
Idiazabal gazta	16 €/kg

# \_kontra



Miren Ayesa KAZETARIA  
\_Leihotik

## Juliana Sarachaga

*“Gerra garaian sustoak bakarrik izaten genituen. Ezkutatu egiten ginen. Ez dut gogoratu nahi”*

JULIANA SARACHAGA (Maroño, 1911) Aiarako emakumerik nagusiena da. 102 urte ditu, baina oraindik panderoa jotzen du.

**ERREDAKZIOA** Iraia Aspuru Juliana Sarachaga maroñoararak gerra ugari ezagutu ditu. 102 urterekin, gerra ematen jarraitzen du.



**Konfesatu. Zer egin behar da ehun urte bizitzeko?**  
Bizi. Nik ahalik eta gehien lan egin dut, bestela egurra genuen eta! Isilik eta etxean egon, hori da egin behar dena luze bizitzeko!  
Nik gehiago bizitzeko asmoa dut.

**102 urterekin panderoa jotzen jarraitzen duzu. Hori da meritua!**  
Ni ez naiz zaharra, txikia naiz! Aitak ez zuen panderoa jotzea nahi, ganaduari kasu egitea baizik. Panderoa jotzen behiak zaintzen nengoela ikasi nuen. Makil batekin harria jotzen nuen, zarata egin zuen arte. Gaztetan erromerietara joaten ginen.  
Lehen asko kantatu eta dantzatzen genuen denok.

Gerra Zibila,

**Frankismoa... ezagutu dituzu.**  
Gerra egon zenean Maroñon geratu ginen. Ordurako ama izango nintzen, nire alabak, Felipak 80 urte baino gehiago ditu eta. Sustoak bakarrik izaten genituen. Gu ezkutatu egiten ginen. Ez dut gogoratu nahi.

**Eskolara joan zara?**  
Irakurtzen Maroño eskolan ikasi nuen, aitak bestela egurra ematen zigun eta. 4-5 pertsona joaten ginen, baina ez zegoen emakumerik. Denborarekin gauzak aldatzen joan ziren. Eskola berria, 1931n egindakoa, urtegiaren azpian dago. Nik oso gutxi ikasi dut. Gauzak eginez ikasi ditut, panderoa jotzen bezala.

**Maroñoko elizako atezaina izan zinen. Bitxikeria mordoa ezagutuko zenituen.**  
Giltzak nik izaten nituen, garbitu egiten nuen. Apaizak eta irakasleak urrunetik zetozen. Horregatik, batzuetan gure etxean geratzen ziren lotan.

**Aiaraldea aldatu dela uste duzu? Zertan?**  
Maroñoko urtegia egin baino lehen zubia eta errepede bat zegoen. Lehen hemen ez zegoen urtegiarik. Pantanoa dagoen tokian errota eta kortak zeuden. Errotari gorpila deitzen zioten, denetarik ehotzen zuten ahal zutenek. Ni amarekin hara joaten nintzen, astoarekin. Baina ez gainean, garia eramaten zuen astoak. Lehen zelai guztiak garia ziren, orain ia ez dago ezer.

**Duela 80 urte nola ligatzen zenuen?**  
Erromerietan. Mutil guapoak aukeratzen ibiltzen ginen, baina gurasoek ez ziguten uzten, haiek erabakitzen zuten. Beti “sueltoan” dantzatzen genuen, elkar ukitzen ez ziguten uzten eta. Mutilekin dantzatu egiten genuen, zergatik ez ba! Mutilak etortzen ziren neskengana. Gu mutilen bila joan? Non ikusi duzue hori? Ni jada etxetik ez naiz ateratzen eta ez dut aldatetarik ikusi.

Ez naiz zure puta

**O**rain dela agun batzuk Frantziako gizon ezaguneguz osatutako talde batek “Ez ukitu nire puta” manifestua kalera tu zuen; 1971. urtean 343 putak abortu librearen aldeko emakume multzo batek sinatutako idatzian inspiratua.

Emakume horiek beraien gorputzak beraienak zirela aldarrikatu zuten eta orain gizon hauek askatasunaren izenean besteen gorputzak erabiltzearen eskubidea eskatzen dute.

Azken hauek ez dituzte Frantziar Gobernuak bezeroei jarriko dizkien isunak ordaindu nahi, baina ez dute sexu langileek egunero jasaten dituzten eskubide urraketei buruz ezer esaten, ezta lege horrek emakume hauengan izango dituen ondorioez ere. Eta ez dute egingo, izan ere boterean daudenek ez dira estigmatizatuak, ez dute errepresioa jasaten, edota ez dute eskubiderik gabe lan egiten. “Ez gara inoren putak, are gutxiago zuenak”, esan die Sexu Langileen Sindikatuak. 42 urte eta batzuek emakumeon gorputzek jabea dutela pentsatzen jarraitzen dute.

**ASTEBURUKO MENUAK, OSPAKIZUN BEREZIAK, ETA ABAR...**

1929 urtetik  
**LA ENCINA**  
RESTAURANTE

**ENPRESA BAZKARIETARAKO MENUAK 25 €-TIK AURRERA**

GARAY ETORBIDEA 4, 01474-ARTZINIEGA (ARABA)

ERRESERBATZEAK  
TLFNOA: 945 39 60 40

## EBE Argindarra

**Zerbitzua Euskaraz**

- Argiketariak Aiara osorako.
- Argi instalakuntzak eta mantenimendua (etxebizitza, pabilioietan, industrigintzan eta herriko argietan)
- Argiketari Tituludunak eta Homologatuak

Ebe Argindarra
 ebeargindarra@gmail.com
 679.070.116